

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2022ko maiatzak 20 · 1229. zenbakia

EUSKARAREN EGARRIA ASETZEKO PREST



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Miopia ebakuntza, kataratak
eta presbiziaren kirurgia



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844 • www.clinicarecalde.com



osasun gida

Dentistak



arar
HortzKlinika

"Hortz osasuneko profesional taldea zure zerbitzura"

T. 943 20 18 51
www.ararclinicadental.com

UniverSalud
Mafuz, konpainia eta kolektibo handien lundutako zerbitzu

IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALTATE GUZTIAK

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
Tfnos. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Estetika



abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Pérez Cuadros

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

KIRURGIA ESTETIKOA

Egiguren, 6. bulego 943 206 044

EIBAR HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4. beheko esk. info@eibarclinicadental.com
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

MIGUEL SEMINARIO ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidobarrieta, 7-1. esk. 843-702888

Fisioterapeutak

ANE MENDIA
Fisioterapeuta

- ENDOSTEREOTIPIA
- KINESIOTERAPIA
- Posturazio orra TRASTURNOA
- A-ORRATZAK + BIZIARRAZKETA

FISIOTERAPIA ZENTRUA

ARRAQUETA, 20
Tfn. 943 53 56 42
www.aneformail.com

Pedro Etxeberria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EQUINERO

Calbeton 19 - 3. esk. Tfnos: 943 20 72 17

Unzaga Plaza
Hortz Klinika - Clínica Dental

B. Izaguirre eta M. Orozco

Unzaga Plaza, 5 - 4. ezkerreko Tel. 943 70 23 85

Ginekologia

Dra. Laura Martínez  **Dr. Alejandro Recas**

GINECOLOGÍA EIBAR

- Ginekologia
- Obstetriziazioa
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 85 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com

GASTESI
Hortz-Klinika

Errebal, 9-1. C
943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta prebentzioak / PACI
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia

Dietetika/Nutrizioa

NATUR HOUSE

Ainara Irujo Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22
Mugikorra: 677 551 850




943-206776

Jarraitu gaitzazu!



Aurten bai. 2020an pandemiagatik ezin izan zen ohi bezala antolatu, baina aurten bai; bihar iritsiko da Eibarrera bazterrak euskaraz bustiko dituen euskararen aldeko olatua. Urkizutik Untzagaraino eskutik eskura eramango dugu euskaltzaleok euskaraz eta ilusioz beteriko gantxilla.

Portalean Elena Plaza, Eva Franco, Koldo Badillo eta Oskar Mansoren lanak ikusteko aukera egongo da eta Topalekuan Juan Antonio Palacios eibartarrarenak. Hilaren 29ra arte egongo dira biak zabalik. Untzaga jubilatuko etxean, bestalde, XLVIII. Nazioarteko Gipuzkoa Saria ikus daiteke, astelehenetik domekara. Eta hilaren 31ra arte, "Argizaiola 2021" hartuko du Depor tabernak eta Portalea tabernan Eibarko Klub Deportiboko argazkilarien lanak egongo dira ikusgai.

@etakitto



etakitto.eus



ARGITARATZAILA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitateak@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Malen Jainaga

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



Konparazio txiki bat

Azken urteotan, Euskadiko hiri eta herrietan bidegorriak eta paseoak egitearen aldeko apustua egiten ari dira, mugikortasun iraunkorraren arloan saiakera serioa egin ahal izateko. Horren adibide desberdinak ditugu, batzuk oso hurbil, eta gure udalak, agian, kontuan hartu beharko lituzke.

Hilabete honetan bertan irakurri ahal izan dugu prentsan Bilboko itsasadarraren eskuinaldea 6,5 kilometroko bulebar berri bihurtu nahi dutela, Bizkaiko hiriburuko erdigunetik Ereagako hondartzaraino joateko. Unai Rementeria Bizkaiko ahaldun nagusiaren hitzetan, espazio berde handiak dituen oinezkoentzako eta bizikletentzako pasealekua: «Metropoli-eremuko mugikortasunaren iraultza fisiko eta emozionala ekarriko duen obra bat da».

Bai. Eibarren ere pasealeku eta bidegorri baten aldeko apustua egin nahi da. Bi proiektu hauen arteko konparazio txiki bat egin nahi izan dugu. Konparazioa beste edozein pasealeku-bidegorri proiektutara eraman liteke, eta beste parametro batzuk alderatu ere.

| | BILBO-GETXO | EIBAR |
|--------------------------------------|--------------------------|------------------------|
| Aurrekalkulazio hasiera data | 2022 Urtaria | 2022 Urtaria |
| Luzera | 6,5 km | 1 km |
| Aurrekontua | 20.000.000 € | 20.000.000 € |
| 1 km-ko kostua | 3.077.000 € | 20.000.000 € |
| Bizilagunen alekzioak | — | Ugariak |
| Lotura | Bilbo-Ereaga-Leiza-Getxo | Eibarko barandak |
| Sartzeak | Kalearen alburan | 3 (logelak) eskalera |
| | | (?) |
| Alburra | Kalearen alburan | 8 (pantano alburan) |
| Konparatu nahi den edozein parametro | | Berez Eibarrek irabazi |

Bizkaiko Ahaldun Nagusi jauna, zatoz Eibarrera. Gurea bai mugikortasunaren benetako iraultza fisiko eta emozionala, eta ez Bilbon egingo dena.

**No al paseo que nos entierra -
Ekialdea Bai Auzo Elkarte**

Lanbide Heziketako ikasketadunen gabezia industrian

Aurreko astean hainbat formakuntza zentro izan ginen Eusko Legebiltzarrean Debabarrena eskualdearen egoera kezkarriari buruz hausnartzeko sortutako batzorde berezian. Armeria Eskolatik aipatu genuen bi direla paraleloan landu beharreko gaiak: batetik, gure eskualde industrial izaerari eusteko enpresa sarea indartu eta erakargarriagoa egiteko; bestetik, enpresa hauetan etorkizunearan lan egin beharko luketen langileen “harrobia” lantzeko.

Azken horren inguruan, eta ConfeBask-ek 700 enpresa baino gehiagorekin egindako azterlan batean oinarrituz, 2022ko kontratazio-eskaeraren %40 LHko ikasketak dituztenei zuzenduta dago, eta kopuru hori %63raino igotzen da industria-sektorearen arloan. Errealitate hori ez da islatzen egun gazteek aukeratzeko duten ikasketa ibilbideekin; hau da, gure eskualdeak LH-ren bidez arlo teknologikoetan trebatutakoak behar ditu, baina Lanbide Heziketa industrialak ez da oraindik ere gazteen lehen aukera.

Zentzu horretan, orientatzaileak, familiak eta ikastetxeok ahalegina egin beharra dugu LH-n ematen ari diren eraldaketak ezagutarazteko eta, aldi berean, enpresen egungo errealitatea zein den jakinarazteko.

Azken urteetan LH-n eraldaketa sakonak ematen ari dira, metodologikoak zein instalazio edo ekipamenduaren berriztearekin erlacionatutakoak. Aldi berean, ahalegin handia egiten ari gara gure eskaintza erakargarria eta eguneratua izan dadin; horrela, espezializazioak indartzen ari gara eta aurtun Industri-mantentzearen digitalizazioa deituriko espezializazioa jarriko dugu martxan.

Armeria Eskolatik inguruko sektore industrialari erantzun nahi diogu; hala, %86ko laneratze-tasa daukagu batzbestek gure azken promozioiko ikasleen artean eta eskolako lan poltsatik urtero 130 lan eskaintza baino gehiago kudeatzen ditugu. Hala ere, hainbat eskaintza ezin asetuta gelditzen dira. Beharra handia da, baina, demografia arazoek eta ikasketa-ibilbideak inguruko eskariarekin lerrokaturata ez egoteak ez dute batera laguntzen behar hori asetzen.

Armeria Eskola

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

OILLAR → Oilo arra. “Oillarrak kukurrukua jo baiño lehen, hiru bidar ukatu eban”.
Ingurukoei nagusitzen zaiena. “Hor dator auzoko oillarra, harrotuta praka barrixekin”.

1968

Euskerazko lehen abesti lehiaketa

Eibarko Radio Juventud irratiari egin zen, 1968ko ekainaren 25ean. Francoren diktaduraren eskutik, "Cadena azul de radio-difusión" delakoaren baitan sortu zen Radio Juventud, 1940an, eta Eibarko emisora 1953an zabaldu zuten (PLAZAOLA).



Farmaziak

- BARIXAKUA 20**
 - EGUNEZ | Lekunberri** (Isasi, 31)
 - ZAPATUA 21**
 - EGUNEZ | Castaño** (J. Etxeberria, 7)
 - DOMEKA 22**
 - EGUNEZ | Elortza** (J. Gisasola, 19)
 - ASTELEHENA 23**
 - EGUNEZ | Barandela** (Z. Agirre, 4)
 - MARTITZENA 24**
 - EGUNEZ | Mendinueta** (Urkizu, 6)
 - EGUAZTENA 25**
 - EGUNEZ | Elortza** (J. Gisasola, 19)
 - EGUENA 26**
 - EGUNEZ | Azkue** (T. Etxebarria, 4)
 - BARIXAKUA 27**
 - EGUNEZ | Barandela** (Z. Agirre, 4)
- GAUEZ BETI**, 2022an,
Mendinueta (Urkizu, 6)

Telefono jakingarriak

| | |
|--|-----------------------------|
| SOS deiak | 112 |
| Pegora | 010 |
| Udaletxea | 943 70 84 00 |
| Portalea | 943 70 84 39 |
| Udaltzaingoa | 943 20 15 25 |
| Mankomunitatea | 943 70 07 99 |
| Debegesa | 943 82 01 10 |
| KIUB | 943 20 38 43 |
| Epaitegia | 943 03 34 00 |
| Iberdrola | 900 17 11 71 |
| Naturgas | 902 12 34 56 |
| DYA Larrialdiak | 943 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 943 22 22 22 |
| Eibar Ospitalea | 943 03 29 00 |
| Mendaro ospitala | 943 03 28 00 |
| Anbulategia | 943 03 25 00 |
| Torrekueta | 943 03 26 50 |
| Errepideak | 902 11 20 88 |
| Ertzaintza | 943 53 17 00 |
| Eusko Tren | 944 33 33 33 |
| Lurraldebus | 900 30 03 40 |
| Pesa | 900 12 14 00 |
| Taxiak | 943 20 30 71 / 943 20 13 25 |
| Andretxea | 943 70 08 28 |
| Alkohol. Anon. | 629 14 18 74 |
| Al-Anon / Alateen | 650 26 59 63 |
| Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak) | 699 37 75 20 |

Hildakoak

- **Victor Javier Lucena Corral**. 71 urte. 2022-05-11.
- **Restituto Ayuso De la Fuente**. 84 urte. 2022-05-11.
- **Josefa Rajado Rodriguez**. 89 urte. 2022-05-13.
- **Mercedes Feijoo Conde**. 94 urte. 2022-05-14.
- **Tomas Zubizarreta Gabilondo**. 83 urte. 2022-05-15.
- **Luisa Arriaga Meabebasterretxea**. 85 urte. 2022-05-16.
- **Joaquin Soto Ballesteros**. 67 urte. 2022-05-16.
- **Elisa Castellanos Fernandez**. 69 urte. 2022-05-16.
- **Isabel Barambio De Haro**. 109 urte. 2022-05-16.

Jaiotakoak

- **Julen Rios Fernandez**. 2022-05-10.
- **Ekain Pozuelo Garde**. 2022-05-12.
- **Lucia Gonzalez Andrei**. 2022-05-12.



Birziklapenaren sektoreko 25 enpresa baino gehiago bildu ditu Recycling Top-ek

Birziklapenaren eta berrerabilpenaren sektoreko sarea osatzen duten hogeit hamar enpresa, elkarte, fundazio, unibertsitate, zentro teknologiko eta ingurumen-aholkularitza baino gehiago elkartu ziren eguaztenean Eibarko ScrapAd-en instalazioetan, mundu mailako birziklapen-sektorearen erreferentzia-plataforma horren ekimenaren berri zuzenean izateko. "Recycling Top" seigarren topaketa izan da aste honetakoa, Gipuzkoako GK Recycling klus-

terraren barne. Ekimen horren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Sailak Gipuzkoak birziklatzearen arloan duen indarguneari balioa eman nahi dio, eta sektorearen garrantzia ikusarazi Ekonomia Zirkularraren barruko motor ekonomiko gisa. Era berean, enpresentzako laguntza instituzionaleko tresna bat izan nahi du, bai merkatu nazionalen bai nazioartekoan, eta aurkezpen-gutun izan eta berrikuntza-sare berde bat sortu nahi du.

Eibar BHI-ko ikasleek egindako habia-kutzak ipini dituzte Arraten

Eibar BHI institutuan, arratsaldeko "Hauspoa" programaren barruko "Habia-Kutzak" tailerren parte hartzen duten ikasleek, txorrientzako habia-kutzak (egurrezko txabolatxoak) egin dituzte. Horretarako, Eibarko Trust enpresak emandako paletak erabili dituzte, horietako egurra birziklatuz. Habia-kutzak Arrate inguruan ipini zituzten apirilean eta horietako batean amilotx urdin bikotea kumatzen dagoela ikusi dute.



**WE MAKE
DEBABARRENA!**

**STEAM ERRONKA
2022**

Bideo guztiak ikusteko:



18 esperimentu daude leihan We Make Debabarrena! STEAM Erronkan

Hasi da We Make Debabarrena! STEAM Erronka, eskualdeko ikastetxeetatik aurkeztu diren 18 esperimenturekin. Debegesa Debabarreneko Garapen Agentziak jarri du martxan erronka eta esperimentuak bideo bitartez jaso dituzte. Ikasturtean zehar Zientziaren eta Teknologiaren esparruan egindako proiektuak biltzen ditu ekimenak eta maiatzaren 27ra arte eongo da zabalik erronka.

Aurten bi irizpide erabiliko dira irabazlea aukeratzeko, eta horietako bakoitzak %50eko pisua izango du sariaren azken puntuazioan. Alde batetik, bideoen ikustaldiak kontabilizatuko dira eta bestetik, epaimahai batek hautatuko ditu kategoria bakoitzean irabazleak. Bideo guztiak bptdmakers.eus webgunean daude eta ezkerrean daukazuen QRaren bidez sartu zaitezke bertan.

AUTUAN

BELTRAN ETA SOLOLUZEREN OMENEZKO OROIGARRIA JARRI DUTE EITZAGAN

Zaldibarko zabortegian hil ziren Joaquin Beltran eta Alberto Sololuzeren omenezko oroigarria jarri dute Eitzagan. Orain dela hilabete batzuk Zaldibarko Udalak horretarako baimena ukatu zien arren, herritarrek ipini dute. Oroigarria nola ipintzen duten erakusten duen bideoarekin batera zabaldu duten idatzian diotenez, “ez dugu ahazten eta ez dugu ahaztuko. Eitzaga brigadak gauzak bere lekuan jarri nahi ditu, eta bat gutxienez jarri du”.



ARMA SIMULATZAILEA ETA SARRERA DOAN MUSEOAN

Eguaztena izan zen Museoen Nazioarteko Eguna eta, data bereziaz ospatzeko, Eibarko Armagintza-aren Museorako sarrera doakoa izango da domekara arte. Gainera, museoak tresna berri bat jarriko du jendearen eskura, museoan esperientzia berri bat bizitzeko aukera eskainiz. Horrela, errealtate birtualeko armen simulagailu baten bitartez, bisitariak hiru su-sistemekin esperimentatu ahal izango dute, eta bildumako hiru piezarekin elkarreraginean jardun ahal izango dute, aurrerapen-arma bat manipulatu balezala.



Arragueta kaleko 17 eta 19 zenbakiak “berehala” eraistea eskatu du EAJ-PNVk

Eibarko EAJ-PNV udal taldeak Arragueta kaleko 16, 17 eta 19 zenbakiak “berehala eraistea” eskatu du. Gogorarazi dutenez, “EAJk zortzi urte daramatza eraisteko eskatzen, arriskua nabarmena da eta”. Hala ere, orain arteko erantzuna zein den ikusita, Udal Gobernu sozialistaren jarrera “erabat ulertezina” dela adierazi dute. Jeltzaleek diotenez, “2019an familiak etxetik atera zituzten, eta, ondoren, 2022an, desokupatu egin zituzten. Arragueta 17 eta 19 eraisteko proiektua orain dela bi hilabete

sinatu zen. Bi hilabete behar izan dituzte Hirigintza Batzordean aurkezteko. Ez dugu ulertzen zergatik jarraitzen duten eraisketa atzeratzen”.

Horrekin batera, eraikinak eraitsi ondoren orubea hesitzeko eskara ere egin dute, “21. zenbakiarekin egin den bezala, horrela espaloia zabaltzeko. Ez dugu ulertzen zergatik ez den gauza bera egin 15. zenbakian, eta eskatzen dugu, enegarrenez, Udalak zaindu dezala oinezkoen segurtasuna, eraikin hondatuak eraitsiz”.

Oinezkoei eta trafikoari eragiten dieten neurriak Errekatxu eta Bista Ederren

Bista Eder kalea Eulogio Garate eta Mutiolarekin lotzen duen igogailua zerbitzutik kanpo egongo da gaur arratsaldean ere (16:00ak arte), Bista Ederreko 12. zenbakiko eraikina eta gaineko parkea eraisteko lanak direla eta. Obrak eragindako gainerako neurriak ez dira aldatuko.





Esualdeko 30 enpresa egon ziren Jaurlaritzaren laguntza-plana ezagutzen

Eusko Jaurlaritzak aurreko astean aurkeztu zien Debabarreneko enpresei Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak enpresa txiki eta ertainentzako prestatutako 2022ko laguntza-plana. Debegesaren Eibarko egoitzan izan zen ekitaldia, eta eskualdeko hogeita hamar bat enpresa egon ziren bertan, programa bakoitzaren xehetasunak ezagutzeko helburuarekin. Enpresa Txiki eta Ertaintentzako (ETE) 2022ko laguntza-planak 74 pro-

grama jasotzen ditu bere baitan eta aurrekontua 600 milioi euro baino gehiagokoa da. Diotenez, ekonomia suspertzeko eta enplegua sortzeko Eusko Jaurlaritzaren lehentasunetako helburua betetzen lagunduko dute eta, horrekin batera, "lagungarriak izango dira Euskadiko enpresa-sarearen garapen inklusibo eta jasangarri-rako ere". Laguntzen %70 baino gehiago I+G+b programetara eta Trantsizio Energetikora bideratuko dira.

Berrerabili eta Berrasmatu tailerretarako proposamenak aurkeztu daitezke

Udaleko Ingurumen Saila hondakinak murrizteko eta berrerabilpena eta birziklapena sustatzeko tailerren edizio berri bat antolatzen ari da. Ekimena iaz jarri zen martxan eta aurtan jarraipena eman nahi zaio; gainera, aurtengo edizioan tailer gehiago antolatu nahi dira. Horregatik, "Berrerabili eta Berrasmatu" ekimenaren bigarren edizioa diseinatu eta garatzeko, In-

gurumen Sailak ideiak planteatu nahi dituzten saltokien eta elkarrekin ahalik eta proposamen gehien jaso nahi ditu.

Interesa duten saltokiek eta elkarrekin programan horretan egin daitezkeen proposamenak aurkeztu beharko dituzte, Udalaren webgunean eskuragarri dagoen formularioa beteta (hilak 31n amaituko da epea).

Herriko zazpi kaleetan 5.000 metro karratu asfaltatzeko lanak hasi dituzte

Santaiñes, Jardina, Iparragire, Eibarko Txikito, Matsaria, Urki eta Tiburtzio Anitua kaleetan asfaltatzeko lanak hasi dira eta zazpi asteko iraupena izango dute, 173.697 euroko aurrekontuarekin. Guztira 5.000 metro karratu berriztuko dira herriko zazpi kaleetan. Ibargaineko kalezuloan hasi dira lanean eta gaur bertan ekingo diete Santaiñes kalea konpontzeko lanei, Otaolako bidegurutzetik abiatuta. Ipurua kiroldegia parea ere arituko dira beharrean, martitzeneraino. Lan horiek amaitu eta jarraian, Urkira joango dira eta handik Eibarko Txikitara.



Arrate izenekoen jaiak prestatzeko deia

Azken bi urteotan ezin izan da Arrate izeneko emakumeen bazkaririk antolatu, baina aurtan berriz ere elkartzeko moduan egongo dira eta, gainera, 25. edizioa beteko du hitzorduak. Betiko moduan, irailan ospatuko dute jai eguna, baina aurretik gauzak prestatzen joateko, ekainaren 6an elkarrekin bazkaldu eta egitaraua antolatzen hasiko dira. Animatzen direnei 635717400 telefonora deituta emango dizkiete azalpen gehiago.

Euskararen olatua bihar ailegatuko da Eibarrera

Tradizioari eutsiz, “Tantanez Tantan, eibartarrok euskaraz blai” goiburua hartuta abiatuko da bihar eguerdian euskararen olatua. Urkizutik hasita Eibarko erdiguneko kaleak zeharkatuko ditu Untzagara ailegatu arte. Euskaltzaleok galdu ezin dugun hitzordua dugu bihar, beraz, eguerdiko 12:00etatik aurrera.

Eibar BHiko hankapaloek, Musika Eskolako soinu-joleek eta Miren Gisasolaren doinuek girotuko dute bihar Urkizuko iturri ingurua, urteroko moduan bertatik abiatuko da-eta euskaraz betetako gantxilla. Eguerdiko 12:00etan puntuan beteko da gantxilla, eta iturritik abiatuta “eskutik eskura giza katean eramango dugu Untzagaraino”, antolatzaileek diotenez. Gantxilla urez betetzeko ardura aurten AKE-k izango du. Etorkizunetik etorri da AKE, Eibar hobeaz egiteko helburuarekin. Horretarako, “Super Akeen ezinbesteko laguntza jaso du hilabeteotan. Eibarko LH2. mailako ikasleak dira Super Akeak, gure superheroiak, eta eurek egindako lanari esker, 2100. urtean Eibar askoz hobeaz izango da, garbiagoa, justuagoa, osasuntsuagoa eta, jakina, euskaldunagoa”.

Super Akeek beteko dute giza katearen azkeneko maila: “Euren eguna izango da, egin duten lana aitortu nahi diegu eta ondo merezitako omenaldia egingo zaie. Untzagako azkeneko zatian eramango dute gantxilla”. Amaieran, AKEn berbak entzun ondoren, Super Akeek euren dantza eskainiko dute harmailetan; gantxillaren bertsoa ere abestuko dugu eta, amaitzeko, “eibarrontzat ia-ia himnoa bihurtu den *Euskaraz bizi nahi dut* abestiaren koreografia egingo dugu”.

Kilometroko ibilbidean 700 lagun

Urkizuko iturria eta Untzaga giza katez lotzea ez da erronka erraza: “Ibilbideak kilometro inguru duela kalkulatu dugu, eta ibilbide osoa jende-ilara batez lotzeko 700 lagun inguru beharko ditugu. Tarte baikoitzean hainbat arduradun egongo dira jendea anto-



Untzagaraino iristeko esku asko beharko ditu gantxillak.

MALEN JAINAGA

latzen. Herritar batzuek gonbidapena jaso dute, tarte jakin batean jar daitezten, baina gonbidapenik jaso ez duenak nahi duen tartean jartzeko aukera izango du, ondoen etortzen zaion tartean. Hutsunerik, behintzat, ez dadila egon! Eta horregatik dei egiten diegu eibartar guztiei, izan daitezela euskararen olatuaren tanta”.

Herriko establezimenduak ere tanta

Paparrean eramateko 3.000 pegatina atera dira bihar-ko, gantxillaren irudia daramaten pegatinak, eta, horrez gainera, aurten berritasun moduan, “herriko denda eta establezimenduetan jartzeko pegatina handiagoak egin ditugu. Ekitaldiak duen ordutegiari begira, tabernarientzat eta dendarientzat ez da erraza izango ordu horretan ibilbidera irtetea, baina behintzat euskararen olatuarekin bat egin eta tanta izateko aukera eman nahi izan diegu”.

Giza katea behar bezala antolatzeko 11:30ak inguru ibilbidean egoteko deia egin dute antolatzaileek, “denbora behar izaten dugu ilara guztia antolatzeko, eta ez ahaztu zerbait urdina janzteia eta lepoan koardrodun zapia jartzea!”.

“Adimen emozionalak ez du inongo sekreturik, guztiok dugun gaitasuna da, baina landu egin behar da”

ITSASNE GALLASTEGI • Psikologoa



Itsasne Gallastegik adimen emozionalari buruzko tailer teoriko-praktikoa eskaini zuen martitzenean Agifes Buru Osasun Arazoa duten Pertsonen eta Senideen Gipuzkoako Elkarteak Urkizun duen egoitzan. Aurretik, ostera, berarekin elkarrizketa egiteko aukera izan genuen.

Gallastegi Agifeseke psikologoa da eta bi-zi-esperientzia ugari aurre egiteko emozioak ezagutzeko eta erregulatzeko beharra azpimarratu zituen saioan. “Adimen emozionalako tailerraren helburu nagusia da gure emozioez gehiago jabetzea eta horiek eguneroko erabakietan eta inguratzen gaituzten egoeren interpretazioan nola eragiten diguten identifikatzea”, psikologoaren berbetan.

Sarritan entzun dugu “adimen emozionala” kontzeptua, baina zein da zehazki bere esanahia?

Daniel Golemanek zabaldu eta ospetsu egin zuen kontzeptua da, baina aurretik Peter Salovey eta John D. Mayer psikologoek definitu zuten zer den adimen emozionala. Eurek egin zuten definizioaren arabera, norbere eta besteen emozioak ezagutzeko, erabiltzeko, ulertzeko eta erregulatzeko gaitasuna da adimen emozionala. Horrela, ulertzen da adimen emozionalak eragin zuzena duela pertsona baten jokabidean, bere harremanak bideratzen dituela eta emaitza onak jasotzeko erabaki egokiak hartzen laguntzen duela. Adimen emozionalaren barruan bi dimentsio lantzen ditugu: intrapertsonala eta interpertsonala.

Zer esan nahi du bakoitzak?

Adimen emozional intrapertsonala norberaren barneko mundua ulertzeko eta kontrolatzeko gaitasuna da. Interpertsonala, berriz, besteekin enpatizatzeko eta ulertzeko gaitasuna da. Hori kontuan edukita, adimen emozionalaren bost ezaugarritan zentratzen gara.

Zeintzuk dira?

Batetik, autokontzientzia emozionala. Hau da, norberaren emozioak atzematea, izena-ematea eta jabetzea. Bigarrenik, emozioak maneiatzea dago, hau da, emozioak kontrolatzea. Ezin ditugu gure emozioak hautatu, baina gure esku dago gure erreakzio emozionalak nola bideratu ditzakegun era positibo eta eraginkorrean. Hirugarrenik, automatibazioa dago. Norberarengan konfiantza eduki behar da eta gaitzei aurre egin behar zaie emaitza onak lortzeko. Egoera zailak ez dira akats moduan ikusi behar. Blokeatuta gelditu beharrean, egoera horri buelta ematen saiatu behar gara eta aukera moduan ikusi. Horretarako, introspektzio lanak egiten ditugu, eta bakoitzak ikusten du zeintzuk diren bere indarguneak eta ahultasunak. Laugarren ezaugarria enpatia da eta dimentsio interpertsonalarekin du zerikusia. Oso garrantzitsua da besteekin erlazionatzeko. Kontuan izan behar dugu



Itsasne Gallastegik adimen emozionalari buruzko tailerra eskaini zuen martitzenean Agifesen lokalean. AGIFES

komunikazioaren %90 hitzik gabe egiten dela, hau da, gure berba egiteko moduagatik, tonuagatik, begiradarengatik... Beraz, enpatiak emozioak onartzen, arretaz entzuten eta berba bitartez adierazi ezin diren sentimenduak ulertzen laguntzen digu. Eta bosgarren puntuan gaitasun sozialak ditugu. Hau da, horiek nola sortzen ditugun, nola konpontzen ditugun gure arteko arazoak, tonu egokia erabiltzen dugun, nola erabiltzen ditugun hitzak, zein estilotan komunikatzen garen... Ezaugarri guztiek dute garrantzia adimen emozionalean eta horrek erabakitzen du nola interpretatzen dugun gure eguneroko bizitza.

Nola landu ditzakegu aipatutako ezaugarriak?

Ez dira egun bakarrean ikasi eta martxan jartzeko zerbaitekin, egunero egin behar diren gauzak dira. Bestetik, ikusten badugu ez dugula lortzen ondo egotea, ondo legoke profesional baten laguntza jasotzea. Dena dela, gure osasuna zaintzeko kirola egiten dugun moduan, buru osasuna zaintzeko ariketa hauek egitea ondo legoke. Egunean zehar tarte bat atera eta kontzientzia apur bat lantzea besterik ez da kontua.

“Norbere eta besteen emozioak ezagutzeko, erabiltzeko, ulertzeko eta erregulatzeko gaitasuna da adimen emozionala”

“Zer gertatu zait?”, “zergatik haserretu gara?”, “zergatik sentitu dut hau?”, “bera nola sentituko zen?”... Gauza horiek pentsatzeko tarte hartzea da gauza. Bestela, bizitzan zehar pilotu automatikoarekin goaz, ez gara gauza horietaz jabetzen, gauzak pilotzen joaten dira eta, gero, gainezka egiten digute. Adimen emozionalak ez du inongo sekreturik, guztiok dugun gaitasuna da. Beraz, gaitasun hori landu egin behar dela ulertu behar dugu.

Nola egin dezakegu eguneroko entrenamendu hori?

Gertatzen zaizkigun gauzak aztertuz, adibidez. Nor malean, beldurra dugula detektatzen dugunean, lehen

Informazio gehiago
elkartearen webgunean:



eskaileran gelditzen gara. Izutu egiten gara eta beste gauza batekin hasten gara, beldur horri aurre ez egiteko. Gero, gainera, beldur horrek eragiten duena da lagunari edo senideari edozein gauzazatik oihukatzea, gertatzen ari denarekin zerikusirik izan gabe. Horregatik, pertsona horrek zer gertatzen zaion ulertu behar du eta ikusi behar du lagunek edo familiakoek ez dutela inongo errurik. Agian, emozioak espresatzen ikasi egin behar dugu, bestela ez dugulako egingo.

Martitzeneko tailerraz gain, adimen emozionalari buruzko zerbitzuak eskaintzen dituzue Agifesen?

Agifesen eskaintzen ditugun ekintza, zerbitzu eta bestelakoen berri jakiteko, agifes.org webguneaz gain, 943 47 43 37 telefonoa jartzen dugu herritarren eskura. Zerbitzu asko eskaintzen ditugu: senide eta zaintzaileentzako laguntza, buru osasun arazoa dutenentzako laguntza (indibiduala eta taldekoa), komunitatean autonomiaz moldatzeko laguntza psikosozialeko programa, tutoretzapeko etxebizitzak, errehabilitazio psikosozialeko zentroak, aisialdi eta denbora libreko programak, Karabeleko Enplegu Zentro Berezia eta, niretzat bereziki garrantzitsua dena, elkarrekiko laguntza-programa, besteak beste.

Zer da, ba, elkarrekiko laguntza-programa?

Bertan, gaixotasuna duen baina dagoeneko ondo eta errehabilitatuta dagoen pertsona batek buru osasuneko gaixotasuna duen pertsona batekin egiten du lan. Adibidez, zailtasunak dituelako medikazioa onartzeko edo gaixotasuna bera onartzeko. Horrela, profesionalaren figura alden du egiten da, kasu askotan ikusi delako hobe dela pertsona horiek gaixotasuna normaltasunez hartzea.

Agifesek sarritan aipatu du buru osasunaren gaia eta buruko gaixotasunak gizarteratu behar direla, eta horri buruz berba egin behar dela, aurreiritziak eta tabuak albo batera lagata, gaiak dituen estigmak kenduz. Nolako lana egiten ari zarete zentzu horretan?

Martitzeneko tailerretik gehien interesatzen zitzaidana jendea hurbiltzea zen, ez hainbeste nik teoria ematea eta kitto. Jendearen zalantzak, galderak, ara-



“Ezin ditugu gure emozioak hautatu, baina gure esku dago gure erreakzio emozionalak nola bideratu ditzakegun era positibo eta eraginkorrean”

zoak eta horrelakoak argitzea zen asmoa. Horregatik planteatu genuen tailer moduan egitea, dinamikoa izateko eta bertaraten zirenek zerbait eramateko. Ez bakarrik ulertzea arazoak nondik sortzen diren, baizik eta ikustea baliabide pertsonal asko dituztela eguneroko egoerei aurre egiteko. Kontua da ez garelako horretaz konturatzen, ez garelako horrelako gauzetan pentsatzen jartzen. Gelditu barik gabiltza, ezertarako denborarik gabe eta, batzuetan, jendeak pott egiten du azkenean.


Josu Retolaza gogoratuko dute domekako “Ekidin zitekeen” ekitaldian

Domeka eguerdian, 12:30ean hasiko den ekitaldian, orain dela 35 urte (1987ko maiatzaren 19an) hil zen Josu Retolaza preso eibartarra omenduko dute. Egiari Zor Fundazioak antolatu du ekimen hori, Josuren familia, lagun eta gertukoek laguntzarekin. Bertatik diotenez, “Retolazak eta bere senideek merezi dutelako aitortza eta erreparazioa, bere heriotza salbuespenezko politika eta espetxearen baldintzen ondorioz gertatu zelako”.




Diagnostiko bat egiteko edo tratamendu bat izateko medikuarenera joatea gauza arrunta bada kanpoko munduan, preso den ororentzat oso bide zaila edo ezinezkoa izaten da gehiegitan. Kartzelan gai-xogotearen esperientzia gogorra da, “presoa indefentsiora bultzatu eta osasunerako eskubiderik ia ez izateraino”.

Josu Retolaza orain dela 35 urte hil bazen ere, presoan inguruko egoerak ez du beharko lukeen aurrepausorik eman. Horren aurrean, Egiari Zor Fundazioak, Etxerat elkartarekin batera, hausnarketa publikoa egin zuen. Salbuespenezko espetxe politikaren ondorioz, “azken sei hamarkadatan 35 euskal preso politiko eta, urrun ziren espetxeetara eginiko bidaietan, horien 16 senide eta/edo lagun hil zirela” eman zuten jakitera; aurrekoei, “beste



bi lagunek bere buruaz beste” egin zutela gaineratu zuten. Heriotza horien guztien erantzule jo zuten “salbuespenezko neurri politikoen aplikazioa”. Horren aurrean, “lagun horiei errekonozimendu ofiziala egin eta erreparazioa nola eskaini” eztabaidatzen hastea erabaki zuten.

Testuinguru horretan, “herrizherri dispertsioak eragindako senideen eta espetxe politikak modu zuzenean eraildakoen oroimenez” nahikoa ekitaldi gauzatu dira azken urteotan, beti ere “aitortza eta erreparazioa lortzearen bidean”. Oraingoan Retolazari egitea erabaki dute bere jaioterrian, “Josuk eta bere senideek ere merezi dutelako, bere heriotza politika horrek ezarritako baldintzen ondorioz gertatu zelako”. Herri etorkizunerako eraiki beharreko elkarbizitzan beharrezkotzak jotzen dute urratsa, “denon memoria eta aitortza ezinbestekoa delako”.



Preso egotean behar zuen arretaren faltak eraman zuen Retolaza heriotzara.

33 urterekin hil zen

Fernando Retolazak, Josuren anaiak, gazte joan zenaren bizitzaren zertzelada batzuk eskaini dizkigu: “14 urterekin fraide joan zen San Asensiora. Handik urten eta, Irunen urtebete egin ondoren, soldadutza egin zuen eta, bueltan, Alfan hasi zen beharrean”. 1980an Eibarren izandako Guardia Zibilaren hiru Land Rover-en aurkako atentatu baten ondoren, sarekada izan zen gure herrian, hamabost lagun atxilotuz. Star lantegitik euren zerbitzua egin ondoren irtendako Land Rover horietako gidari bat hil zen eta, komandoaren kolaboratzailetzat harturik, zazpi urteko kartzela-zigorra ezarri zioten Retolazari.

Atxilotu zutenean ere “Donostiako Laguntzetxera eraman zuten bitan, buruan jasotako kolpeen ondorioz” eta gero Carabancheleko, Puertoko eta Herrerako preson-

degietan egin zituen denboraldiak. Preso zegoela grano arraro bat azaldu zitzaion bizkarrean eta sendagileek garatxoan aurkako produktua gomendatu zioten, Josuren egoerak txarrera eginez. Hilabete asko galdu ziren tartean eta azkenean jakin izan zuten kontua ez zela grano bat, baizik eta azal-minbizia zuela. Madrilgo Ospitale Probintzian ingesatu eta operatu bazuten ere, dagoeneko 1986an, Josuk zuen me-

Bere egoerak atzera bueltarik ez zuela, San Andres bezperan irten eta handik sei hilabetera hil zen Retolaza

lanomak ez zuen onera egin eta metastasia biriketara ere zabaldu zitzaion, eta azkenean Donostiako Arantzazuko Ospitalean hilabete batzuetarako bizitza izango zuela esan zioten.

Diagnostikoan izandako atzerean horiek guztiak bueltarik ez zuen egoera batera eraman zuten Retolaza eta, azkenean, hil egingo zela ikusita kartzelatik irteten laga zioten. “Medikuek hori ziurtatu arte, ez zuen irteteko aukerarik izan. San Andres bezperan etorri zen etxera eta handik sei hilabetera hil zen Deban”, gogoratzen du Fernando bere anaiak.

Ekitaldi xumea etzikoa

Asmo horrekin antolatu dute domeka eguerdikoa Egiari Zor-ekoek. Batez ere, “aitortza eta erreperazioaren bidetik jotzeko”. Programa xumea izango dela diote antolatzailleek: “Josu gogoratzeko hitzak

izango dira tartean, ez da faltako zuzeneko musika eta, azkenik, Egiari Zor-en aldetik ere hitzartze laburra izango da”. Ordu erditik gora ez duela askorik egingo esan digute.

Depresioa, pentsamendu suizidak, diagnostiko berantiarrak, ailegatzan ez diren froga medikuak eta beranduegi ematen diren askatze-aginduak indarrean jarraitzen dute presoengatik inguruko bizitzetan: “Ehun presodun modulu batean astean behin mediku bat igarotzen da, baina aldiro hamabost lagun baino ezin ditu artatu. Kartzelan gaixo diren presoek eritasunaren lehen sintomak sentitzen dituenetik lehen froga medikuak egiteko aukera duen arte batzuetan urteak igarotzen” direla salatzen dute sendagile askok ere.

Nahia Aia medikua Osabidea taldeko kidea da eta, dioenez, “erita-

"Orain dela 35 urte hildako Josuk eta senideek merezitako aitortza izan dezaten" antolatu du ekitaldia Egiari Zor Fundazioak

sunen %27 genetikak edo berezko osasunaren baldintzak eragiten badituzte, gainontzekoak, ia %70, baldintza sozialek ondorioztatzen dituzte”. Kartzelak hor demaseko pisua hartzen du, “on egiten dioten harremanetatik aldentzen dutelako presoak, barruko haremanak normalean bortxan, beldurrean edo botere harremanetan oinarritzen direlako”. Aiaren esanetan, “osasun eskubidea

zigorren gainetik jarri behar da: osasuna eskubidea da, zigortzea ez”.

Dokumentala hilaren 26an

Retolazaren oroimen ekitaldiarekin bat eginez, Lander Garroren “Tipularen Seaska Kanta” pelikula eskainiko dute datorren asteko eguenean, hilak 26, Portaleko areto nagusian. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da proiektzioa eta pelikulan “argi ikusten da nolako eragina duten gaixotasunek kartzela barruan”. Fernando Arburua psikologo eta preso ohiak egingo du “film on eta interesgarriaren aurkezpena”. 1942an kartzelan hil zen Miguel Hernandez poeta espainiarraren “Nana de la cebolla” olerkitik abiatuta, analogia historikoa egiten du filmak: “1936ko gerran preso hiltzeak zentzurik ez bazuen, zentzurik ba ote du gaur?”.

AURREMATRIKULA MAIATZAREN 9tik 27ra

IKASTEDE PUBLIKO DONAKOIA



UNI EIBAR ERMUA








- EGOKITZAPEN FISIKOA
- GIZARTE ETA KIROL IRAKASKUNTZA ETA ANIMAZIOA
- NAZIOARTEKO MERKATARITZA
- GARRAIO ETA LOGISTIKA
- MERKATARITZA JARDUERAK
- ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
+ Administrazioa eta Finantza eskaintza partziala arretualdeko
- ADMINISTRAZIO KUDEAKETA
- SAREKO INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA
- WEB APLIKAZIOEN GARAPENA
- PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA
- SISTEMA MIKROINFORMATIKOAK ETA SAREA

ESPEZIALIZAZIOAK

ZIBERSEGURTASUNA
INFORMAZIOAREN
TEKNOLOGIEN
INGURUNEETAN

www.uni.eus

Oraia Hiribidea, 29 | 20600 Eibar, Gipuzkoa | 943 89 92 11 | idakartza@uni.eus | @uni.eus



Eibartik Aginagarako bidea egiten, 1915. urte inguruan. EIBARKO UDAL ARTXIBOA. INDALECIO OJANGUREN FUNTSA

Auzolanean egiten zituzten hainbat lan: garia lantzea, idiak elkartzea... Bidegintza ere auzolanean egiten zuten. Zer-nolako lanak ziren haiek aipatzen du. Eskulana zen. Errethenak garbitzea garrantzitsua izaten zen eguraldi txarrari eta euriei aurre egiteko.

Auzolanean garitarako, bideak garbitzeko...

Emilio Azurmendi Agirre Sagarbitza
(1936 – 2013)



Gorosta bailarako Sagarbitza (Sagarbieta) baserrian eman zuen bizi osoa. Etnografia gaiak oso gustuko izan zituen eta interes handia izan zuen baserrietako antzinako bizimoduarekin zerikusia duten tresnak, lexikoa eta abarrak zaindu eta gordetzeko. Eibarko baserriarren alkate ere izan zen hainbat urtetan eta oso ondo ezagutzen zituen bai Eibarko mendi-basoak, bai Eibarko baserriarren gorabeherak. Eibarko euskara, toponimia eta etnografia jasotzeko hainbat proiektutarako lekukotasuna eman zuen.

Emilio Azurmendiri grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

[Ta beste gauza batzuetarako-edo elkartzen ziñazien auzolanetan?] Gari ebatieta inoiz, garixa ebaten. Bueno, orduan ohiturria izaten zan, ba, konparaziñuan, behixa alta dauanian, ba, nunbaiten izkua baldin badao, ba, juaten zan zerbiziuia eittera. Ta gero haren orde zeneralian izaten zan, ba, gari-ebatia edo zeozelan lanian. Hori, ba, asko zertzen zan, ta hori... ni hor zerian izanda nao Akondian be bai ta leku askotan. [Eta bidegintzia ze izaten zan? Lurra bera be bai garbitzen zan? Ertzak bakarrik edo zer izaten zan?] Ertzak garbittu ta zulo-unak bete. Ta harrixa pikatxoiakin etara bihar bazan, harrin bat txarra badau be, etara ta gero handik ha bete ta holan, holako... zestuekin. [A bai, e? Zestuekin?] Bai, bai eskulana dana. Eskulana (...)

Urak dakarrena urak daroa, itsasora

Zenbatetan entzun dugu urik gabe ez dagoela bizitzarik? Zoritxarrez, plano teorikotik errealerara pasatzen ari garela gogorarazten diguten seinaleak oso argiak dira. Geroz eta zailagoa da uraren hornikuntza mundu osoarentzat bermatzea eta, gainera, guk eragindako kutsadura gure baliabide preziatuenaren kalitatea hondatzen ari da. Gure errekek nola dauden ikusi besterik ez dago.

Eibarko Baso Biziak elkar-teak antolatutako irteeran, Ibur-erreka eta inguruak garbitzen aritu ziren domekan. Haurrek eta helduek osatutako boluntario-taldea Untzagatik abiatu zen goizetik, Ego ibaiaren ibilbideari jarraituta Ibur-errekarra joateko. Bertara ailegatu eta lanari ekin zioten: erreka eta inguruan zegoen zaborra pilatzeari, alegia.

Aldez aurretik Udalarekin egindako bileretan adostu zituzten zortzi puntutan atera zuten zaborra, poltsetan bilduta, gero Mankomunitateko zerbitzuek jasotzeko. Irteeran parte hartu zutenen berbetan, “uste baino zabor gehiago aurkitu dugu, zoritxarrez”. Horregatik, kontzientziazio mailan oraindik ere lan handia egiteko premia dagoela nabarmendu dute.

Azaldutakoaren arabera, “zaborra biltzeaz gain, ekosistemen azterketa egin dugu txikienekin, hau da, landaredia eta fauna beha-



tu eta ezagutu dituzte. Oso ikasle azkarrak eta zintzoak izan ditugu gurekin, bai horixe!”. Bertaratu ziren guztiei eskerrak eman nahi dizkiete, erreka eta inguruak garbitzen “lan bikaina” egin zuten eta.

Eibarko Baso Biziak-ek aurretik ere antolatu ditu horrelako irteerak, auzolanean erreka eta mendiak garbitzeko. Iazko apirilean aritu ziren zeregin horretan Matsaria eta Santa Kurutzen, eta orduan ere zabor mordo bat bildu zuten.

Erreka inguruak garbi egoteak duen garrantzia behin eta berriz nabarmetzen dute. Izan ere, ezin dugu ahaztu itsasoan pilatzen diren hondakin guztien %80 inguru barnealdetik haraino ailegatutakoa dela.

Inork esan barik ere, jakin badakigu gure errekek garbi egoteko arduraren denona dela. Eta zeregin horretan oso garrantzitsua da gure eguneroko ohiturei erreparatzea. Izan ere, egiten dugun keinu ba-



Nazio Batuen arabera, urtero 8 milioi tona plastiko isurtzen dira mundu osoko itsaso eta ozeanoetara, bertako ekosistemak kaltetuz.

koitzak ondorio batzuk ditu eta horretaz kontziente izan behar dugu. Izan ere, sendagaiak komunetik botatzen ditugunean, edo erabilitako olioak konketatik behera isurtzen dugun bakoitzean, gure erreketako ura zikintzen eta kutsatzen ari gara. Gauza bera gertatzen da zuzenean itsasora eta ibaietara botatzen ditugun hondakinekin. Nazio Batuen Erakundearen arabera, urtero 8 milioi tona plastiko isurtzen dira ozeanoan, bertan bizi diren ekosistemak kaltetuz eta beraien bizitza aldatuz.

Ildo horretan, eten barik hazten ari den mikroplastikoen kontzentrazioak, ekosistemak arriskuan ez ezik, gure osasunari ere kalte egiten diola ohartarazi dute osasun arloko adituek.

Horrez gain, kontuan izan behar dugu likido batzuek, nahiz eta kontzentrazio baxuetan egon, ur-ere-

>>> Plastikoak eta mikroplastikoak geroz eta arazo larriagoa bilakatzen ari dira mundu osoko itsaso eta ozeanoentzat

>>> Itsaso zabalera ailegatzen den zabor gehiena, %80 inguru, barnealdetik haraino ailegatzen da, sarritan errekek berak eramana

mu handiak kutsa ditzaketela: 4 litro gasolinak 2,8 milioi litro ur kutsa ditzake, adibidez.

Uraren kutsadura mota ezberdinen ondorioetako batzuk dira, besteak beste, biodibertsitatea suntsitzea, elika-katearen kutsadura, substantzia toxikoen heda-

pena elikagaietara eta edateko uraren eskasia.

Geoparkeko itsaslabarren garbiketa auzolanean

Bestalde, atzo bertan hasi zen Europako Geoparkeen astearen baitan, Deba eta Zumaia arteko itsas-

labarretan garbiketa antolatu du Euskal Kostaldeko Geoparkeak. Labarretan pilatutako hondakinak eta plastikoak biltzeko garbiketa maiatzaren 29an (domeka) egingo da, Deba-Zumaia Biotopoa, Elorriaga inguruko labarretan (Itziar-Deba).

Ekimenarekin “herritarrak inguru horrek duen ingurumen balioaz jabetzea eta kontzientziazio lan horretan auzolanaren bitartez partaide aktibo bihurtzea” lortu nahi dute antolatzaileek. Horregatik, Geoparkeak deialdia egin nahi die Debako, Mutrikuko eta Zumaia zain inguruko herritarrei “gure ondare naturala zaindu beharrezko garrantziaz ohartaraztea helburu duen ekintza honetan parte har dezaten”. Ekintzan parte hartzeko adin-mugarik ez dago, baina arroketa ibiliko direla kontuan hartzeko eskatu dute.

Garbiketa egiteko egunean, goizeko 08:30ean irtengo da autobusa Debako Zumarditik, boluntarioak Elorriagaraino eramateko, “bertatik jaitziko baikara labarretara. Bestalde, talde bat antolatuko dugu gidari batekin Zumaia-oienez joateko. Autoz ere gerturatu daiteke Elorriagara, baina kontuan izan aparkalekua mugatua dela. Talde horrentzako irteera puntua Elorriagako San Sebastian Ermita izango da, goizeko 09:00etan”.

Azaldutakoaren arabera, Euskal Kostaldeko Geoparkeko ordezkariek garbiketaren parte hartuko duten boluntarioen lana bideratu eta zuzenduko dute. Hiru orduko lana izango da eta, ondoren, zakuak helikopteroz igoko dira Elorriagara. Garbiketaren parte hartzeko interesa duten guztiek izena eman behar



Nagusiek era guztietako zaborra biltzen eta pilatzen zuten bitartean, txikiak landare eta faunari buruzko gauza asko ikasi zituzten domekako irteeran.

>>> Maiatzaren 29an Deba eta Zumaia arteko itsaslabarrak auzolanean garbitzera joan nahi dutenentzat irteera antolatu dute

dute aurrez, labur.eus/garbiketa2022 helbidean.

Arduradunek aurreratu dutenez, ez da hau izango helburu berberarekin datozen hilabeteetan Deban egingo den ekimen bakarra: “Izan ere, Debako Udalak sustatuta, udan, udalerriko hiru ur-gunetan, itsasoan, ibaian (itsasadarra) eta hondartzan, hondakinak (berreziki plastikoak) jasotzeko deialdiak egingo dira, beste hainbat ekimenekin osatutako programa baten barruan”.



FELIZ MORQUECHO

Ikuskizuna txalotzera

Eguzkiak gure kobazuloetatik aterarazi gaitu. Asteburuetan gehienok, eta astegunetan zorionezko batzuk ere, egunez ikusten den izarrari erakusten diogu gure aurpegia pilak kargatzeko balioko balu bezala (bi minutu pasatzean berriro kerizpera, hori bai).

Kalean ikusten den jende guztiaren artean lehengo egunean taldetxo bati erreparatu nion. Ilaran, fin, fin, binaka jarrita, batzuk eskutik eta besteak ondokoaren parean. Irakasle bat aurrean eta beste bat atzean, eta, halako batean, ume batek puxikei erreparatu zien. Globo urdin eta gorriak zeuden dendetan zintzilik. Batek hasi eta besteek berehala jarraitu zioten: "Eibar, Eibar!". Baina ume haiek ez zeuden Ipuruako bidean, justu kontrakoa. Taldea aurrera zihoala batek urrutitik ikusi zuen. "Hor dago Coliseo antzokia".

Hiriko ikastetxe desberdinetatik ikusi ditugu ilara hauek antzerkia ikustera joaten. Ikasturte desberdinetakoak, bakoitza bere adinerako aproposa den ikuskizuna txalotzera. Urteak darama Debarreneko Eskolarteko Antzerki Erakusketak martxan, 30 baino gehiago. Eta lan ixil horrek bere balioa badu. Erraza da umeek ohitura batzuk ezagutzea. Asteburua kalean eman behar dela, tabernetan hobe, argi dago. Foballa ere kalez kale dugu eta gaur egun urdina eta gorria batera ikusiz gero 8 urteko umeek ere badakite zeren ikurra den hori. Baina beste kirol batzuk erakusten saiatzen garen bezala, pertsona osatzeko beste zerbait badagoela ere azaldu behar dugu.

Eibarrera antzerkia noizbehinka ailegatzen da, baina inoiz joan ez denarentzat aparteko zerbait izango da beti. Hor hartzen dute garrantzia jardunaldi hauek, ume denei antzerkia ezagutzeko aukera ematean. Ez dira ume denak antzezle izateko gogoarekin aterako, baina jakingo dute zer gertatzen den teloa zabaltzen denean. Hain naturala den kuriositate horri helduta biharko zalegoa lantzen ari da, eta bide batez ondo pasatzeko aukera izango dute, dena ez da ikastea ere, zer demontre!

"Ez dira ume denak antzezle izateko gogoarekin aterako, baina jakingo dute zer gertatzen den teloa zabaltzen denean"



etxe-apainketa gehigarria

2022ko maiatzak 20


KOLORE NEUTROAK

Kolore neutroak nagusi dira oraindik espazioen dekorazioan. Pandemiak etxean askoz denbora gehiago pasatzera eraman gintuen, eta kolore zaratatsuak ez ziren konfinamendurako lagun onak. Beraz, tonu leunagoak, argitsuagoak desiratzen hasi ginen, eta neutroek, zentzu horretan, ez dute lehiarik. Aurten 2021eko joerarekin jarraituko dugu, eta 2022an kolore hauek izango dira nagusi: zuria, beigea, harri grisa edo egur argi tonua.

2022ko koloreak

Hala ere, kolore neutroak ez dira modan egongo diren bakarrak. Honako hauek ere baditugu:

- Berdea: pastel berdetik berde grisaxkanera, gure etxeari ukitu naturala, freskoa eta estilo handikoa emango dion kolorea da.
- Beltza: kolore neutroa ere bada, baina ausarta ere bai, jakina. Azentu txikietan, zuriarekin kontrastea sortuz, modan dago.
- Okrea: kolore bihurtutako eguzki-izpiak ere 2022ko joeretako bat dira.



MINIMALISMO BERRIA

Kolore gutxikoa eta ordena handikoa bazara, estilo minimalista 2022ko dekorazio-joeretako bat da berriz ere: lerro zuzen eta fronte leunetako altzariekin baretasuna transmititzen duten espazioak lortuko ditugu, eta kolore argiekin eta kontrastea irabazteko azentu beltzen batekin nagusitzen diren guneak ikusiko ditugu. Efektu hori asko eramaten da aurretan. Baina kontuz! Iraganeko minimalismoaz bestelako ukitu batekin: kalitate handiko diseinu-piezen presentzia, estilo handiagoa ematen diotenak. 2022 honetan minimalismoa isladatzen duen etxeko gela bat sukaldea da.



ECO-FRIENDLY ESTILOA

Hemen material organikoak, birziklatuak, berrerabiliak aukeratzen dira. Egur, metal eta beira birziklatuak, landare-zuntzak, marmola, harria eta abar erabiltzen ditu eco-friendly estiloak. 2022an altzariak edo dekorazio-osagarriak berritzeko asmoa baduzu, zuntz eta material naturalen aldeko apustua egin dezakezu. Politak izateaz gain, ingurumena errespetatzen dute.

Etxeak, bulegoak, tailerrak...

Kalitatezko lanak

Konfiantzazko zerbitzua

Idea bat duzu?
Zure ametsetako proiektua gero eta gertuago
Epeak beteaz, lasaitasunez, eta segurtasunez.

irazabal

943 120 108 www.irazabal.net eraikitzaileak erreformak guttizartzea Azitain industrialdea, 3-H, EIBAR

ALTZARI KURBATUAK

Adituek *curvy* altzariak azpimarratzen dituzte aurtengo pieza desiratuenen artean. 2021eko joeretan ikusi genituen, baina 2022an indartsu jarraitzen dute. Forma biribilduak dituzten altzariak eta ergonomikoak sofistikatuak dira, eta apaintzen duten edozein espazioren errege bihurtzen dira. Sofa kurbilineoak, adibidez, 2022ko egongelarako joeretako bat dira, baita besaulki kurbatuak ere logeletarako.



KRISTALEZKO HORMAK

Jada ez dugu espazio guztiz irekirik bilatzen. Anplitudea nahi dugu, metroak eta argia irabazi eta egonaldiak komunikatu, baina ixteko aukerari eutsiz intimitatea irabazteko. Kristalezko hormak ezin hobekak dira hori lortzeko. Mugatu egiten dute, ixteko aukera ematen dute, baina, aldi berean, begirada gela batetik bestera pasarazten dute, espazio-sentsazioa galdu gabe.

A collage of four images: top-left shows a modern multi-story building with a curved facade; top-right shows a red-tiled roof with a skylight; bottom-left shows a staircase with glass railings; bottom-right shows a stone building facade. Below the images is a logo and text for 'eraieder'.

FATXADA ETA TEILATUEN BIRGAIKUNTZA
BARNE-ERREFORMAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA



eraieder
since 2007

ERAIEDER, S.L. Matsaria, 10 / Tf. 943 200 453
info@eraieder.es / www.eraieder.es

VENTANAS ONA[®] LEIHOAK
 Bidebarrieta, 28 Tel. eta Faxa: 943 20 28 28
 Mugikorra: 653 113 309 / 688 695 415
 info@ventanasona.com / www.ventanasona.com



**AROTEGI METALIKOA, PVC ETA MISTOA
 KONPONKETA ETA MANTENIMENDU ZERBITZUA**



/ 1964 estudio **proiektuak interiorismoa**



jardiñeta, 14 if. 656756485 www.estudio1964.com

648035528  
 info@klauselbar.com
 www.klauselbar.com



denda
 proiektuak
 dekorazioa
 erreformak
klaus
 Estaziño, 3

Arane, 6 -EIBAR- 943 20 61 64 / 943 17 19 73
F. PASCUAL
AROTEGIA - EBANISTERIA
SUKALDE ALTZARIETAN ESPEZIALIZATUAK



ARMAIRU ENPOTRATUAK
 - Zur mota guztietan
 - Zure dekoraziora egokitutakoak

SUKALDE ALTZARIAK
 - Fabrikatzaileak gara
 - 30 urteko gorako esperientzia

Zubiaurre, 36-38
ERMUA
 943 17 68 28

 **VIRGINIA PASCUAL**

www.cocinaspascual.com

LANDARE HANDIAK

Barneko landareak 2022ko joera handienetako bat dira, zalantza barik. Sar itzazu gela guztietan, baita komunean ere. Formatu handiko barne-landareek freskura ukitua emango diote gure etxeari, eta, aldi berean, aire osasungarriagoa eskainiko digute.



MATERIAL ORGANIKOAK ETA IRAUNKORRAK

Bizi dugun sasoi honetan bizidun ororengan interes handiagoa dago, gizakiaren eta naturaren arteko lotura nabarmenduz. Material naturalek eta organikoek, hala nola zurezko zoruak, harriak, eguneko argiak eta landareek, kanpoaldea gogorarazten digute eta natura eta ongizatea transmititzen dizkigute.

IZARRAITZ
LEIHOAK-ERREFORMAK

Leihoak:
PVC / Aluminio / Mistoak
Mantentze-lanak
Era guztiko erreformak
Pertsianak / Manparak

Bidebarrieta, 48 943 25 60 26
EIBAR (Soria) ventanlas-izarraitz.eibar@hotmail.com

Dutxa berria

mikel elorza
interiorismo

Estazio 16

@mikelelorza_interiorismo - 605 773 720

DETAILE TRADIZIONALAK

2022an detaile tradizionalak indartsu itzultzen ari direla ikusten ari gara. Azken urteotan gertaera ugari eman dira mundu osoan, eta ez da harritzekoa gero eta jende gehiagok etxean erosotasuna, atenporalitatea edo nostalgia pixka bat desiratzea.



APAINGARRI ETNIKOAK

Eklektikoa eta exotikoa, estilo etnikoak urrutiko lurra gogorarazten dituzten dekorazio guztiak biltzen ditu. Kolore beroak eta material naturalak nahasten ditu, artisautza eta oroitzapenak. Horrela, aukeratutako tokiaren arabera, maskara afrikarrak, haizemaile asiarrak, ehun indiarrak, «Juju hats»... erabil ditzakezu. Baina adi!, bere neurrian erabili beharreko estiloa da, zure etxean ondo integratzea lortu behar duzu.

Teilatuak Fatxadak Sukaldeak Gremioen koordinazioa etab.

JORGE VEGA S.L.
IGELTSERITZA

F. Calbetón, 4 - 3. solairua 




Tel. 943 20 83 26 eta 607 20 12 23 Tel. eta Faxes: 943 20 77 34 jorgevega.eibar@gmail.com

ERABILI ALTZARI ALTUAK SUKALDEAN

Sabairainoko moduluek biltegitratzea biderkatzen dute. Sukaldea gainezka ez egotea nahi baduzu, saiatu altzari modularrak apalekin konbinatzen. Jarri horma batean, espazioa ez betetzeko, edo aprobetxatu hozkailuaren edo labearen gaineko hutsuneak, zutabeen. Gogoratu kolore argiek eta argi naturalak zure sukalde txikia optikoki zabaltzen laguntzen dutela, oso erabilgarria metro gutxi daudenean.



AUKERATU ONDO DUTXA

Gaur egun bainugela moderno gehienek dutxa dute bainuontziaren orde. Gainera, bere tamainagatik, bertan gehien nabarmentzen diren gauzetako bat dira. Horregatik, oso garrantzitsua da dutxako platera, manpara eta hormaren estaldura ondo aukeratzea. Txorrota jolasteko beste elementu bat da, kolorea edo akabera aldatuz.



Erreforma integralak
Gremioen koordinaketa

REONOR
REFORMAS Y OBRAS DEL NORTE

Barrena, 14 Tf. 943 254 254



INDUSTRIA ESTILOKO METALAK

Dekorazioan ohikoa da brontzea bezalako tonu metalikoak erabiltzea. Apurka-apurka itxura industrialeko gero eta metal gehiago ikusiko ditugu, hala nola altzairu beltza edo metal leunduak. Letoia, nikel leundua eta zilarra indar handiarekin itzultzen ari dira.



SUKALDEKO ETA BAINUGELAKO GAINEKO EGURRA

Onea hezetasunaren aurrean gogorra eta erresistentea den egur mota bat aukeratzea da: kaoba, teka, intxaurrendoa, haritza edo pagoa. Gainera, erresistentzia handitzeko tratamenduak aplika daitezke (bernizak edo olioak ere orbanetatik eta zipiztinetatik babesten laguntzen dute). Egurrezko bloke bat bada, abantaila da lixatu egin daitekeela marka txikiak kentzeko.



ISOLAMENDUAK
ERREFORMAK
ERAIKIN ERREHABILITAZIOA
OBRAK ETA PROIEKTUAK

943 57 41 03 Txonta, 27 - behea www.jmr.eus

IÑIGO SUSAETA • Kriptodiruan aditua

“Kriptodiruen kontua ez da ke hutsa”

Kriptodirua, Blockchaina, NFTak... Azken aldian hainbatetan entzun ditugun berbak dira eta, seguruenik, bati baino gehiagori buruak eztanda egin dio kontzeptuok ulertzeko saiakera eginez gero. Beraz, gaian argia emateko asmoz, Iñigo Susaeta eibartarrak ikastaroa emango du ekainaren 7tik aurrera.

Testua
EKHI BELAR

Susaeta Blockchain For Future taldeko kidea da beste hiru lagunekin, eta ‘Kriptodiruen azterketa, aurrezpena eta inbertsioa’ izeneko ikastaroa eskainiko du, online. Gaian zerotik trebatu nahi dutenei zuzenduta dago, kriptodirua munduan modu errealistan murgiltzeko eta teknologia berri hauek ematen dituzten aukerak ahalik eta hobeen aprobetxatzeko.

Kriptodiruen mundua oso zabala da. Zertan espezializatu zara?

Kriptodiruen inguruan gauza asko daude eta, era berean, oso espezifikoa da. Mundu horri ikuspegi errealista ematen saiatu naiz. Beti entzun dugu kriptodiruekin baten batek ez dakit zenbat diru irabazi duela, jendea aberastu egin dela... Promesa handiak egin dira, baina ez da ikuspegi errealista eman.

Zein ikuspegi errealista?

Inbertsioen munduan dabilen jendea, baina ez dena egunero horretan aritzen, dirua aurrezten saiatzen da eta, ahal bada, biderkatzen. Ez dabilta kolpe handien bila. Orduan, Bilboko lagun batekin kriptodiruen inguruan zegoen ikuspuntua aldatzen saiatu nahian hasi nintzen, promesa handiak egin gabe teknologia hauen inguruan informazioa emateko. Informazioa hor dago, baina ikastaroak beharrezkoak dira

informazio hori ulertzeko eta erabilgarria izateko. Bost hilabete daramatzagu ikastaroa prestatzen eta, horrez gain, gure esperientzia erabilgarria izan daitekeela uste dut.

Bitcoin, Ethereum... Zenbat kriptodirua daude?

20.000 inguru daude, asko. Gai honi eman nahi diogun ikuspegi errealista aurretik zikloak pasa dituzten kriptodiruetan oinarritzen da. Bitcoinak mugitzen du kriptodiruen merkatua. Bitcoin erortzen bada, merkatua erori egiten da; eta gora badoa, merkatua ere bai.

Hain zuzen ere, hori gertatu da orain dela gutxi. Bitcoina asko jaitsi zen eta demaseko eragina izan zuen kriptodiruen merkatuan. Zer gertatu zen?

Kriptodiruen aurrerapen logikoa balio erreserba izatea da. Hau da, urrearen antzeko zerbait izatea. Merkatuetan gauzak erortzen direnean, jendeak urrea erosten du, urrearen balioak antzekoa izaten jarraituko duelako seguruenik. Gaur egun, ostera, kriptodirua merkatuari lotuta daude oraindik. Horrela, beldurra gailentzen denean, jendeak saldu egiten du; eta kriptodiruen mundutik kanpo geratzean arriskua ikusten denean, ostera, jendeak erosi egiten du. Bitcoinaren jaitsierari dagokionez, zenbait gauza. Batetik, munduko merkatuak asko jaitsi ziren. Eta bestetik, bost onenen artean zegoen kriptodirua

Ikastaroaren
inguruan
informazio
gehiago





Iñigo Susaetak eskainiko duen ikastaroa ekainaren 7an hasiko da.

“Teknologia honek nolako ekarpena egin dezakeen erakutsi nahi dugu, gauza ez dela bakarrik dirua irabaztea”

bat erori egin zen eta horrek ere eragin handia eduki zuen. Kriptodiru hori bere sorkuntzatik kulunkatzen zen, baina, gainera, zenbait gertakizun egon ziren, sistemak huts egin zuen, sinesgarritasuna galdu zuen eta karta-gaztelu bat bezala erori zen dena.

Horrelako gorabeherekin, nola fidatu gaitzke kriptodiruaz?

Kriptodiruen kontu honek jarraipena izango duela erakutsi nahi dugu ikastaroan. Burbuila dago (20.000 kriptodiru daude eta hori ez da jasangarria), baina badaude merezi duten kriptodiru batzuk. Adibidez, Bitcoina erortzen denean, Bitcoinak dituen jendeak saldu egiten du, beldurratik eta desinformatuta daudelako, baina kriptodiruetan milioiak inbertitzen dituztenak kriptodiruak erosten ari dira, ikuspegi hobea dutelako. Bestetik, banku batzuk kriptodiruan sartzeko aukera ematen ari dira.

“Kriptodiruen inguruan promesa handiak egin dira, baina ez da ikuspegi errealista eman”

Zerbait progresiboa da. Kriptodiruen merkatuak hamar urte besterik ez ditu, haurtxo bat da, baina joera horri aurrea hartzeak etekina eman ahal dizu etorkizunean, estrategia egokia eramanez. **Gaian hasiberriak izanik, nola jakin zein estrategia eraman?**

Orain dela urtebete gutxi gorabehera kriptodiruen inguruan boom-a egon zen, eta jendea horretaz aprobeztatu zen ikastaroak eskainiz eta bete ez diren promesak eginez. Ondorioz, jendea sumindu egin zen eta kriptodiruen mundua zikindu egin zen. Guk ez dugu promesik egiten, estrategia jasangarriak bultzatzen ditugu.



Kriptodiruan hasiberria den jendearentzat bideratuta dago ikastaroa.

Ikastaroa nori zuzentzen zaio?

Kriptodiruen inguruan ideiarik eduki ez arren bertan inbertitu nahi dutenei. Azpimarratu behar da, gainera, hasierako fasean jende horren bidelagun izango garela. Izan ere, teoria ondo jakin arren, praktikan jartzeko beldurra eduki dezakezu.

Nola egituratuko duzue ikastaroa? Nolako gauzak irakatsiko dituzue?

Taldeko klaseak eta klase indibidualak uztartuko ditugu astero, parte-hartzaile bakoitzaren hazkundera ikusi ahal izateko. Klaseak online izango dira eta Power Point bitartez gauzak irakatsiko ditugu, baina gure esperientzia euren esku lagako dugu, bideo-tutorialak eskainiko ditugu... Ikastaroa lau bloketan banatu dugu. Lehenik, teknologiarri buruz egingo dugu berba, ideia orokor batetik gaiari heltzeko. Bigarrenik, gaur egungo ekosistema aztertuko dugu (NFTak, metaversoak, 'Play to earn' jokoak, Web 3.0...). Hirugarren blokean inflazioari, KPI-aren edo gasolinaren igoerari eta horrelakoei buruz egingo dugu berba. Azkenik, kriptodiruen billete-zorroen, iruzurren eta abarren

“Ez da nik emango dudalako, baina horrekin guztiarekin hasi nintzenean jaso nahi izango nukeen ikastaroa da”

inguruan jardungo dugu. Ez da nik emango dudalako, baina horrekin guztiarekin hasi nintzenean jaso nahi izango nukeen ikastaroa da. Teknologia honek nolako ekarpena egin dezakeen erakutsi nahi dugu, gauza ez dela bakarrik dirua irabaztea. Kriptodiruen kontua ez da ke hutsa, teknologia bat dago atzetik eta geratzeko etorri da.

Kriptodirua da etorkizuna?

Etorkizunean izan daiteke kriptodirua gailentzea, ez dakigu, baina momentuz gaur egunera arte erabili dugun dirua eta kriptodirua elkarrekin bizi behar izango dira. Poliki-poliki jendeak aukera eman ahal izango dio kriptodiruari, baina ondo informatu behar da aurretik, desinformazioz gabe. Prozesu luzea izango da, baina hoberako, eta poliki-poliki aurrera eginez gero, gauzak hobeto egingo dira.



Argazkian, ezkerretik eskuinera, Pauline Guelle, Irati Iciar eta Kepa Sarasola. UEU

Aurkeztu dituzte mende erdira ailegatu diren UEUren Udako Ikastaroak

Kepa Sarasolaren berbetan, UEU-arentzat urteurren garrantzitsua da hauxe: “Donibane Lohitzunen egin ziren lehen Udako Ikastaro horiek hainbat euskaltzalek eta erakundek bultzatuta, euskarak unibertsitaterako ere balio zuela erakutsi nahi zutelako. Orduz geroztik, urtero-urtero, bost hamarkadetan zehar, UEUren Udako Ikastaroek ez dute hutsik egin udako beraien zitara eta, hasierako sustatzaile haiek aurreikusi bezala, UEUk eta Udako Ikastaroek frogatu dute asko ongi euskara zein erabilgarria den unibertsitatean ere. UEUn aritu diren milaka pertsonak eskertu nahi ditugu, beraien elkarlanari esker posible izan baita euskara teknikoak sortzea; beraiei esker lor-

tu baita unibertsitate-mailako 500 liburu baino gehiago argitaratzea; beraiei esker fisika nuklearrari buruz klaseak eman ditzakegulako; beraiei esker Ikergazte kongresua antolatu dezakegulako. Katebegi askok ekarri gaituzte hona, eta aurrerantzean ere katebegiek jarraitu dezaten nahiko genuke. Izan zaitezke katebegi horietako bat aurten, Udako Ikastaro eder hauetan parte hartuz”.

Irati Iciarrek eman zituen jarraian ikastaroen xehetasunak: “22 jarduera antolatu ditugu, baina aurten guztiak izango dira jardunaldiak edo topaketak. 50. edizioa berezia izatea nahi genuen UEU-arentzat eta euskal gizartearentzat estrategikoak edo garrantzitsuak

UEUren 50. Udako Ikastaroak aurkeztu zituzten aurreko astean Kepa Sarasola UEUko Zuzendariak, Irati Iciar UEUko Udako Ikastaroetako arduradunak eta Pauline Guelle UEUko zuzendaritzako kideak. Aurten 50 urte beteko dituzte Udako Ikastaroek eta, hori dela eta, edizio berezia izatea nahi dute. Asmo horrekin 22 jardunaldi eta topaketa antolatu dituzte, hainbat eragilerekin elkarlanean.

diren hainbat gai lantzeko aukera paregabea genuela ikusi genuen eta, horretarako, ohikoa den moduan, hainbat eragilerekin #ElkarEkin antolatu ditugu: 10 eragile, UEUko 10 sail eta azpiegiturretan ere beste zortzi eragile izango ditugu bidaide. Horretaz gain, gure bazkideak ere zirikatatu eta hainbat topaketa espezializatu ere prestatu ditugu. Zalantzarik gabe, fruitu asko emango duen edizioa izango da honakoa; etorkizunera begira jarriko baikara. Hausnarketa hauetan ahalik eta jende gehiagok parte hartu dezan, 10 euroko prezio eskuragarria jarri diogu matrikulari”.

Hiru astetan banatu dute aurtengo eskaintza: ekainaren 27tik uztailearen 1era; uztailearen 4tik 8ra; eta uztailearen 11tik 15era. Ikastaroetan izena emateko epea dagoeneko irekita dago eta ikastaroa hasi baino astebete lehenagora arte egin ahal izango da matrikula. Informazio gehiago izateko zein matrikula egiteko, www.ueu.eus helbidera jo.

“Arrakastaren kontzeptua pertsonala da, norberak aurkitu behar du bere bidea”

JOSEBA ITURRASPE • McOnak taldeko gitarra eta ahotsa



Datorren asteko asteburuan Euskal Jaia ospatuko da Eibarren eta barixakuan, jaiari hasiera emateko, McOnak musika taldeak Untzaga dantzan jarriko du 23:00etatik aurrera. Izan ere, Lekeitioko rebel folk taldeak kostaldeko indarra ekarriko du gurera.

McOnak taldeak San Andres jaietan jo behar zuen Eibarren, baina koronabirusaren eraginez bertan behera laga zituzten ekintza guztiak. Orain, sei hilabete geroago, euren musikaz gozatu ahal izango dugu, eta jai giroan gainera.

Zuen musikak ezin aproposagoa dirudi Euskal Jaian gozatzeko...

McOnakek badu jai giroko musika egiten duen etiketa. Serio egon behar dugunean badakigu serio egoten; baina, festa giroan elkarrekin gozatzeko aukera dagoenean, gu pozik.

Abestiak sortzeko orduan, zuzenekoetan nola entzungo den kontuan izaten duzue?

Sortze prozesuan bai aurreikusi daiteke zuzenean abesti horrek forma bat edo beste izan dezakeela, baina gero abesti bakoitza momentuaren arabera da. Gainera, zuzenekoetan ez da gauza bera areto batean, herriko festa batzuetan edo eliza batean jotzea. Beraz, zuzenekoena ere oso kontzeptu zabala da. Abesti batzuek

hobeto funtzionatu dezakete areto mota batzuetan eta beste batzuk herriko festetan.

Eibarren jo eta hurrengo egunean BEC-en joko duzue. Zita handia da, baina hemengo kontzertuan ez duzue ezer gordeko, ezta?

Ez, ez! Gainera, Sanandresetan Eibarren jo behar genuen eta azkenean kontzertua bertan behera laga zuten. Beraz, arantza hori atera nahi dugu Eibarren, herriari zorra ordaindu eta dena hankaz gora jarri. BEC-era justu ailegatzen bagara, ez da seinale txarra izango.

BEC-en Delirium Tremensen itzulerako biran joko duzue. Nola zaudete hitzordu horren aurrean?

Delirium Tremens bizitza guztian entzun dugun taldea da. Gainera, abestien gaien aldetik nolabaiteko antzekotasuna dugu, kostaldea eta itsasoa oso presente ditugulako. Beraz, gure iturri izan dira. Orain dela urte batzuk esango bazenigu Delirium Tremens-ekin BEC-en joko genuela, ez genizuke sinestuko. Are gehiago, Delirium Tremens ikusteko aukera izango genuela ere ez genuen pentsatzen! Guretzat pasada bat da eurekin jotzea.



Sanandresetako kontzertua atzeratu behar izan eta gero, McOnak taldea gogotsu dago Euskal Jaian jotzeko. MCONAK

Horrek erakusten du, moduren baten, McOnak talde moduan izan duen bilakaera ere, ezta?

Arrakastaren kontzeptua oso pertsonala da eta bakoitzak aurkitu behar du bere bidea. 11 urtetan taldea proposamen ezberdinak egiten eta kontzertuetan zenbait puntu lotzen saiatu da, talde berezia izatea lortzeko.

2021. urtean 'Bitakora' diskoa kaleratu zenuten. Zuen 10. urteurrena borobiltzeko balio izan zuen?

Pandemiaren ondorioz pixka bat atzeratu genuen diskoaren sorkuntza eta orain, 2022an, 10+1 urteurrena ospatzen ari gara. Egindako bideari, lagunei, sakrifizioei... errekonozimendua egiteko balio du diskoak, gure inguruari eskertzeko modu bat da. Kontzeptu aldetik, itsas jerga erabili nahi genuen eta horregatik deitzen da 'Bitakora', marinelek euren egunerokoa idazten zuten koaderno bezala, gure hamar urteko ibilbidearen metafora moduan.

Diskoan izen handiko kolaborazioak izan zenituzten.

Oso prozesu trinkoa izan zen, baina aberasgarria eta polita era berean. Gonbidatutako artistak eta gu gu pozik geratu ginen emaitzarekin. Bakoitzak bere aldetik

asko jarri du eta kontraste politak egon dira, baina kolaboratzaileek abesti bakoitza euren egitea lortu dute.

Nola bizi dituzue sasoi berriko kontzertuak?

Hasiera nahiko gorabeheratsua izan zen, udazkenean nolabaiteko normaltasunera iritsiko ginela zirudielako, eta negu inguruan beste olatu bat etorri zelako. Orain egoera normalizatu egin da eta ikusten da profesionalak, musikariak eta publikoa gogo handiarekin daudela, gauzak mugitzen ari direla, eta hori oso pozgarria da. Guri, behintzat, kontzerturik ez zaigu falta.

Nolako agenda duzue aurretik?

Nahiko bizi dator uda. Ekainean Azpeitian egongo gara, gero Boga garagardo fabrika joko dugu eta udan Amorothon, Aramaion, Lesakako Sanferminetan, Donostiako Karmen jaietan, Lemoan, Askainen ibiliko gara. Urrian, bestetik, Sarek presoen alde antolatuko duen kontzertuan izango gara. Agenda beteta daukagu eta oso pozik eta eskertuta sentitzen gara. Orain guri tokatzen zaigu egurra ematea. Pandemia eta gero publikoak gozatu egiten duela ikusten da, eta bai eurek, bai guk, horren beharra genuen.



Ondare industrialaren aztarna. BAKARNE ELEJALDE



Seven modalitateko estatuko talde onenak izango dira asteburuan Eibarren.

Errugbiko Erreginaren Kopa jokatu da Unben

GPS 7s Reina Iberdrola Kopako finalak Eibarren jokatu dira asteburuan. Gaur taldeei harrera egin eta gero, bihar eta etziko jardunaldiak 09:00etan hasiko dira, egun osoan partiduak jokatzeke. Eibar Rugby Taldeak Rucksport agentziarekin antolatutako egitarauan entretenimendu-guneak prestatu dituzte (janari-edari, musika eta zozketak) "bertaratzen diren zaletu guztiek giro onenaz goza dezaten". Ohorezko mailako 12 taldek seven modalitatean jokatu dute Unben, zapatuan sailkatzeke eta domekan Erreginaren Kopako finalak jokatzeke.

Astebururako prestatutako egitaraua gaur hasi eta domekara arte luzatu da. **Gaur**, 20:00etan, parte hartuko duten hamabi taldeetako kapitainen talde-argazkia aterako dute udaletxean, eta jarraian aureskua dantzatuko dute, Jon Iraola alkatearen hitzaldiari paso eman aurretik. Eibar Rugby Taldeko presidentek ere berba batzuk egingo ditu, egunari amaiera

emateko, 21:25ean hasita, Estrella Electrónica eskainiko duen catering-a zerbitzatzeko. Ondoren, DJ Izar elektronikoa eta hirugarren denbora egingo dira.

Hurrengo egunean, **zapatuan**, goizeko 10:00etan hasiko dira partiduak, eguerdiko 12:00etan lehenengo atsedenaldira gozatu dute, eta 12:45ean partiduekin hasiko dira berriro. Fan zonaldean,

bitartean, janariak eta edariak zerbitzatu dira, musika doinuekin lagunduta. 14:50ean bazkaltzeko tartea egingo da, eguneko bigarren atsedenaldirarekin, eta handik 40 minutura partiduekin hasiko dira berriro. 17:30ean hirugarren zatia ekingo zaio DJ Goikorekin.

Hirugarren egunean, **etzi**, goizeko 09:00etan hasiko dira partiduekin, azken sailkapena izango dena egituratzen joateko. Hor izan diren emaitzen arabera sailkapena behin osatuta, Erreginaren Kopako finala jokatu da 16:20etik aurrera. Partidu hori amaituta, hirugarren denbora egingo dute, DJ Goikok beste saio bat eskainiko du, sari-banaketa ekitaldia izango da jarraian eta, amaitzeko, agurra egingo zaie ordezkari guztiei. DJ Goikok giroa du arratsaldeko egitarauaren zatirik handiena.

Zapatu eta domekako ekitaldi guztiak Unbe izango dute ardatz, gaurkoa udaletxean eta Untzaga Plazan egingo den bitartean. Eta talde guztiek Ahtleterapia fisioterapia zerbitzuak izango dituzte txapelketak irauten duen bi egunetan.

Zazpigarren postua hobetzeraz

Erreginaren Kopa honetan parte hartzen duten taldeak honakoak dira: Sant Cugat, Cisneros, Majadahonda, Les Abelles, Rugby Turia, CRAT Coruña, Eibar, CDU Sevilla, Olimpico Pozuelo, Industriales, Sanse Scrum eta Leon RC, orain arte orden horretan sailkatutakoak. A Coruñan eta Sant Cugat-en jokatutako bi asteburuetan San Cugat izan zen irabazlea eta katalanak dira liderrak, 44 puntuekin. Cisneros bigarren izan zen jardunaldi bietan eta 38 puntu ditu. Eibarrek, bestalde, zazpigarren egin zuen bietan, 20 puntu ditu honaino eta postu hori hobetzen ahaleginduko da. Ikuskizuna ziurtatuta dago.

Gizonezkoen Arrate Eibar Eskubaloiak etxean jokatu du igoera fasea

Gure herriak hartuko du datorren asteko asteburuan eskubaloiko Zilarrezko Ohorezko Mailara igotzeko egoitzetako bat Eibartik egindako eskaintzari erantzunez. Bere multzoan txapela jantzi duen Fernando Fernandezek prestatzen duen taldeak bere multzoan bigarrena izan zen Orgracia Sabadell-en kontra jokatu du barixakuan (hilak 27), bere multzoan irabazi zuen Madrilgo Balonmano Ikasa aurkari izango du zapatuan (hilak 28) eta, amaitzeko, Santoña, beste bigarren

bat, izango du aurrez aurre domekan (hilak 29).

Emakumezkoak Zaragozan

Azkenean mailaz igotzeko gol bakarrera geratu zen Andoni Perezek zuzentzen duen emakumezkoen taldea aurreko asteburuan Zaragozan jokatu duen igoera fasean. Senior mailako Arrate Eskubaloiko jokalariak bi partidu irabazi zituzten (22-20 Imdeam La Jotari eta 21-19 Montequintori) eta bakararra galdu, Eon Alicantereekin (27-30). Fase



bikaina egiteaz gain, Maialen Insausti atezainak jokalaria onenaren saria jaso zuen.

Aitziber Urkiolak Mutrikuko triatloiaren podiumera igo zuen

Gure herriko Jaz Triatloi Taldeko ordezkariak 3. postua lortu zuen Mutrikuko esprint distantziako triatloian. Berritua ama izan eta hilabete gutxira, Aitziber Urkiola indartsu bueltatu da probetara. Gizonezkoetan ere emaitza bikainak lortu zituzten hiru taldekidek: Miguel Ledesma 10. postuan helmugaratu zen, bigarren izateko 23 urtez azpikoen mailan; Roberto Gartzia 3. izan zen beteteranoetako bere mailan Gipuzkoako txapelketan; eta Ander Ordoñok 76. postuan amaitu zuen.



Bestalde, Jaz Triatloi Taldeko beste hiru kidek parte hartu zuten Iruñean jokatu Espainiako distantzia ertaineko triatloi txapelketan. Ioseba Tamayok Elite mailan hartu zuen parte, profesionalak tartean zirela, eta 34. postua lortu zuen (4:17:37). Martin Irigoyenek Open mailan lehiatu zuen, proba 23. postuan amaitzeko (4:54:29). Eta Joseba Mikel Ortega Agote nekazainak 5:13:42an gelditu zuen erlojua, 12. izateko bere adin-taldean.



Bittor Ugarteburu garaile Asola Berrin

Asola Berri bolatokian jokatu du 51. Gipuzkoako hiru-txirlo txapelketaren zazpigarren jardunaldian klubeko Bittor Ugarteburuk garaipena etxean laga zuen. Eibartarrak Elgetako Iker Arizmendiarrarekin berdindu zuen, sei txirlo botata, eta atzetik izan zituen San Migueleko Xabier Loiola eta Floreagako Santos Muñoz, launa txirlorekin. Guztira

65 bolarik hartu zuten parte. Zortzigarren jardunaldia Aretxabaletan jokatu da bihar, 17:00etan. Txapelketako sailkapen nagusian, bestalde, Asola Berriko Garikoitz Rodriguez dago lider; hori bai, gertutik jarraitzen diote Iñaki Gojenola taldekideak eta San Andreseko Jose A. Nuñezek, biek ere txirlo bat gutxiagorekin.

Ipuruak lepo beterik hartuko du zapatu gauetan Eibar-Tenerife partidua

Itxaropentsu eta gaur egun duen postuari eusteko asmoarekin zelairatuko da bihar 22:00etan Gaizka Garitanoren taldea 1. Mailara igotzeko urrats sendoena emateko asmoarekin. Aurreko zapatuan kostata Leganesen lortutako garaipen garrantzitsuak bigarren postuan jarraitzeko hiru puntuak eman zizkien eibartarrei, aurretik eurekin borrokan diharduten beste bi taldeak (Almeria eta Valladolid) irabazte izan ondoren. Bi jardunaldi gertatzen dira bakarrik Liga amaitzeko eta Teneriferi irabazteak astebu-



ru honetan bertan 1. Mailako talde bihurtu dezake Eibar FT, beti ere Valladolidek ez badu lortzen Ibizan irabaztea. Txarrean ere, Teneriferi irabazita behintzat, igoera eskutik izango lukete eibartarrek azken jardunaldian Alcorconen jokatuko beharreko partiduari begira. Tenerife aurkari gogorra bada ere (2. Mailan etxetik kanpo puntu gehien

bildu dituen taldea da), igoera promoziorako txartela ziurtatua du eta ez du horrelako premiarik.

Zaletuen aldetik ere interes berezia sortu du partidua eta, horrela, aste honetako martitzen goizean salgai ipini ziren 2.000 sarrerak ordubetea saldu ziren; horiek lortzeko baziren ilarak goizeko 06:30erako txarteldegia ondoan.

Iker eta Paula Calvo anai-arrebek La Rochelleko Látlantiqueko meeting-ean hartu zuten parte Euskadirekin

Eibar Igerixaneko igerilari elgoibartarrek Gipuzkoako selekzioarekin hartu zuten parte meeting horretan, bakoitzak lau proba egiteko. 2006an jaiotako Ikerrek 200 metro estiloko proba irabazi zuen, 100 bizkarreko A finalean bigarren izan zen, 100 tximeletan hirugarren eta 200 libretan bosgarren, guztietan ere A finaletako probatan. 2009an jaiotako Paulak, bestalde, 200 metro bizkarrean denborarik onena eskuratu zuen, modalitate bereko 100 metrokoan bigarren izan zen eta 50 metrokoan hirugarren, 100 libreko proban seigarren sailkatzeko, postu guztiak A finaletan eskuratuak. Lan bikaina, beste behin, Calvo anai-arrebek burututakoa.



Pilota-jaialdia gaur

Astelenak lau pilota-partidu hartuko ditu gaur 18:00etan hasiko den jaialdian. Lehenengoko biak Pilota Eskolako bikoteen artekoak izango dira. Beste biak Udaberri Txapelketakoak, 19:15ean abiatuta: Deporreko Amillategi - Gil bikoteak Anoetako ordezkariak izango ditu aurkari, eta Varona-Urkiagak Azpeitikoak.

Udaberritraila etzi

Kalamua Korrikalari Taldeak antolatutako 12 kilometroko Udaberritraila domeka goizean abiatuko da, 08:30ean, Deportibo aurretik, eta toki berean amaituko da. Bi ordu eta erdiren bueltan amaitzea aurrekusi dute. Proba doanekoa bada ere, parte hartzeko kalamuakorrikalaritaldea@gmail.com helbidean eman behar da izena. Animatu, ez du zailtasun berezirik-eta.



Eibarko eskubaloiairen historia laburbiltzen duen erakusketa Errebal Plazan

JD Arrateren 75. urteurrena (1947) eta Eibar Eskubaloiairen 10. urteurrena (2011) ospatzeko antolatutako dituztenen artean, Eibarko eskubaloiairen historia laburbiltzen duten milaka irudi digitalizatu ipiniko dituzte gaurtik aurrera Errebalen, eraikinaren 1. solairuko funtzio anitzeko aretoan. Inaugurazioa arratsaldeko 18:00etan izango da. Astelehenean aurkeztu zuten erakusketa Jon Iraola alkateak, Ander Curiel Kirol zinegotziak, Gaizka Bilbao Eibar Eskubaloiko presidentek eta urteurrena antolatzeko ardura duen taldeko kideak diren Guadalupe Ibáñezek eta Javier Fernándezek.

Azaldutakoari jarraituta, erakusketa prestatzeko hainbat erakundek eta partikularrek lagatako argazki mordoia erabili dituzte, jasotako milaka argazkiren artean esanguratsuenak aukeratu eta gero. Hala ere, norbaitek irudirik izanez gero, antolatzaileekin kontaktuan ipintzea eskertuko luketela adierazi zuten agerraldian.

Erakusketako irudiak Errebalgo aretoko telebista pantailetan ikusi ahal izango dira, barixakutik maiatzaren 26ra bitartean, 11:00etatik 13:00era eta 18:00etatik 20:00etara. Ondoren, maiatzaren 27tik 31ra bitartean Ipurua kiroldegiko sarrera nagusian ikusteko aukera egongo da.

Herri bazkaria uztailaren 16an

Aipatutakoarekin batera, uztailaren 16an (zapata) herri bazkaria egingo da, hain zuzen ere JD Arrateren sorrera 1947ko uztailaren 17an izan zela gogoratzeko. Horren harira, bazkarirako izen-emateak egiteko, galdetegi bat jarri da eskuragarri Eibar Eskubaloia eta JD Arrateren sare sozialetan eta herritarrak parte hartzera animatu nahi dituzte.




Bi pintura lehiaketatan saritu dute Esteban Oroz

Esteban Oroz artista eibartarrak bi sari irabazi ditu asteburu honetan, Idiazabalen eta Zumaian egin diren aire zabaleko pintura lehiaketetan. Zapatuan izan zen Idiazabalgo II. Aire Zabaleko Pintura Txapelketan 35 margolarik eman zuten izena eta eibartarrak lehen saria eskuratu zuen. Eta domekan, Zumaian egindako Kaleko Pintura Lehiaketan, hirugarren saria jaso zuen.



Eguaztenean banatuko dituzte Ipurterre sariak

Eguaztenean eman zuten epaimahaiak aurtengo Ipurterre Ipuin eta Gutun Lehiaketako ebazpena. Eskolekin elkarlanean... eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen lehiaketak XXVIII. edizioa bete du aurten. Eibarko LH eta DBHko ikasleek 1.000 lan inguru aurkeztu dituzte eta hauek izan dira irabazleak: LH1-2 mailan Paule Martin (J.A.Mogel); LH3-4 mailan Bittor Navarrete (J.A.Mogel); LH5-6 mailan Pello Aranzeta (J.A.Mogel); DBH 1-2 mailan Elga Ariznabarreta (Eibar BHI), eta DBH 3-4 mailan Malen Aguirremalloa (La Salle Azitain). Sari-banaketa hurrengo eguaztenean, maiatzak 25, egingo da Unibertsitate Laboralean, goizeko 10:00etan. Sariak banatzeaz gain, Tor magoak ikuskizun magikoa eskainiko du.



Cristina Rodríguez lanak iragarriko ditu Sanjuanak

“Sanjuanak Eibarren” jaietarako kartel lehiaketaren epai-mahaiak aurtengo irabazleak zeintzuk diren eman du ezagutzera aste honetan. Cristina Rodríguez eibartarraren “Goazen kalera!” kartela saritu dute helduen kategorian eta, beraz, kartel horrek iragarriko ditu jaiak aurten. Horrez gain, 11 eta 14 urte bitarteko artean, 12 urteko Andoni Olcoz Gerardi eibartarra izan da irabazlea, “Eibar Unbetik ikusita” lanarekin; eta 10 urte artekoen mailan, 10 urteko Jon Prieto Ulaciak, eibartarra hau ere, lortu du saria, “San Juan gaua” izeneko kartelarekin.



Gipuzkoako jubilatuen abesbatzak Coliseo antzokian

Gipuzkoako Jubilatu Elkartearen Abesbatzen emanaldia hartuko du Coliseo antzokiak martitzenean, 16:00etan. Aretxabaletako Basotxo, Arrasateko Abaroa eta Eibarko Untzaga abesbatzak arituko dira eta, horrez gain, Hernaniko Goiz Eguzki abesbatza gonbidatu dute emanaldira. Sarrera doan izango da, baina aurretik eskuratu beharra dago, Internet bidez edo leihatilan..

Salgai daude Eibarko Koro Gaztea ikustera joateko sarrerak

Aste honetan jarri dituzte salgai Eibarko Koro Gazteak egun batzuk barru Coliseo antzokian eskainiko duen kontzerturako sarrerak. Ikuskizuna ekainaren 2an, eguena, izango da, 20:00etatik aurrera, eta sare sozialen bidez aurreratu dutenez kontzertu berezi horren bidez Eibarko Koro Gaztearen historia pixka bat hobeto ezagutzeko aukera izango dugu. “Kontakizun eta emozioz beteta egongo da, nostalgia pittin batekin apainduta... Han ikusiko dugu elkar, ezta?”, adierazi dute Koroko gazteek.

Alkohol gehiegi ez edateko pegatina aukeratu dute



Sanjuanetan alkohola neurrian edateko mezua zabaltzeko asmoz Udalak antolatzen duen pegatina lehiaketako irabazlea Malen Jainaga Larrea izan da, “Hi sosisuz” izenburuko lanarekin.

Talogintza ikastaroa egunean

Arrate Kultur Elkarteak hainbat ekimen antolatu ditu maiatzaren 27tik 29ra bitartean ospatuko den Euskal Jaiaren harira: batetik, larrain dantzaren errepasorako saioak martitzenean, 19:00etan Arrateko Andra Mari ikastetxean izaten direla gogorarazi nahi dute. Eta, horrez gain, maiatzaren 26an (egunean) talogintza ikastaroa emango dute, 18:00etan hasita. Izena emateko arratekultu@gmail.com edo 638284912 telefono zenbakira deitu daiteke.




Eibarko Musika Bandak rock doinuak eskainiko ditu domekan

Eibarko Musika Bandak rock klasiko betetako egitaraua prestatu du domekarako. Horrela, The Doors, Eric Clapton, TOTO, Supertramp eta beste zenbait talde ezagunen abestiak joko dituzte, 12:30ean, Toribio Etxebarria kalean. Eurria eginez gero, Errebal Plazara mugituko dute ikuskizuna.



AURKITU 7 EZBERDINTASUNAK



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|--|---|---|-----|
| | 8 | 4 | | | 5 | | 7 |
| 1 | 6 | | | | | 3 | 5 |
| | | | | | 9 | 6 | |
| | | 9 | 8 | | 3 | | 2 |
| | 2 | | 5 | | 4 | 1 | |
| | | 8 | 2 | | | | |
| 2 | | 1 | | | | | 4 9 |
| | 5 | | 9 | | | 7 | 6 |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|-----|
| 2 | 1 | 8 | 9 | 6 | 3 | 5 | 7 |
| 8 | 4 | | | | | 3 | 5 |
| | | | | | 9 | 6 | |
| | | 9 | 8 | | 3 | | 2 |
| | 2 | | 5 | | 4 | 1 | |
| | | 8 | 2 | | | | |
| 2 | | 1 | | | | | 4 9 |
| | 5 | | 9 | | | 7 | 6 |

soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2 | | 8 | 4 | | | |
| 7 | | 9 | | | | 6 | 3 |
| | | | | | | 2 | |
| | | 2 | | 7 | | 1 | 8 |
| | | | 8 | 9 | | | |
| 4 | 9 | | 5 | | 6 | | |
| | 7 | | | | | | |
| 5 | 3 | | | | | 1 | 4 |
| | | | 4 | 9 | | 5 | |

S
U
D
O
K
U

soluzioa

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|-----|
| 2 | 1 | 8 | 9 | 6 | 3 | 5 | 7 |
| 8 | 4 | | | | | 3 | 5 |
| | | | | | 9 | 6 | |
| | | 9 | 8 | | 3 | | 2 |
| | 2 | | 5 | | 4 | 1 | |
| | | 8 | 2 | | | | |
| 2 | | 1 | | | | | 4 9 |
| | 5 | | 9 | | | 7 | 6 |

Maiatzak 20 / 26

BARIXAKUA 20

INAUGURAZIOA

18:00 Eibarko eskubaloia-
ren historia iruditan
erakusketa. Errebal Plaza
(1. pisua).

KONPONFEST

18:00 Ping-pong
txapelketa. Pintxopote.
Gaztetxea.

BAKARRIZKETA

18:30 Bakarrizketa
feminista (Nerea
Ariznabarreta) eta zaintza
lanen inguruko tertulia ez
mixtoa. Eibarko Bilgunea..



AURKEZPENA

19:00 Roberto Villarreal-en
"El proyecto Escipión"
liburua. Portalea..



RUGBY SEVEN

20:00 Kapitainen talde-
argazkia. Aurreksua.
21:30 Catering-a. Untzaga.

ZAPATUA 21

RUGBY SEVEN

10:00/17:30 Partiduak.
Musika, janaria eta edaria
Fan Zone-n. Unbe.

KONPONFEST

10:00/19:00 Auzolana.
Poteo eztabaidatua.
Kontzertuak: Enzisk2+
Malakias. Gaztetxea.

TANTANEZ TANTAN

12:00 Urkizuko iturritik
Untzagaraino.



DOMEKA 22

RUGBY SEVEN

09:00 Partiduak.
16:20 Finalak. DJ Goiko.



OMENALDIA

12:30 Iosu Retolaza preso
izandakoa gogoratzeko
ekitaldia, Egari Zor
Fundazioak antolatuta.
Txaltxa Zelaiko
auditoriuma.

MUSIKA

12:30 Eibarko Musika
Banda. T. Etxebarria (euria
bada, Errebal Plazan).

MARTITZENA 24

IBILBIDE OSASUNTUAK

10:00 Herritar guztientzat
zabalik, 5 kilometro
inguruko ibilbidea,
Minbiziaren Kontrako
Elkarteak antolatuta.
Ardantza 11tik abiatuta.

ABESBATZA LEHIAKETA

16:00 Gipuzkoako jubilatua
elkarteko abesbatza
lehiaketa. Coliseo.

EUSKAL JAIA

19:00 Larraín dantzaren
errepasorako saioa.
Arrateko Andra Mari
ikastetxea.

EGUAZTENA 25

IPURTERRE

10:00 Sari-banaketa eta
Tor magoa. Unibertsitate
Laborala..

DANBORRADA

19:00 Sanjuanetako umeen
danborradarako entsegua.
20:00 Helduena. Beistegi
eraikina (B. Sarasketa, 7).

EGUENA 26

ZINEA

10:00/12:00 "Pan de limón
con semillas de amapola".
Dinamizatzailea: Juan
Aldai. Portalea.

ODOL-EMATEA

16:30/20:30 Odola emateko
saioa. Anbulatorioa.

EUSKAL JAIA

18:00 Talogintza ikastaroa.
Arrate Kultur Elkarte.



DOKUMENTALA

19:00 "Tipularen Seaska
Kanta" (Lander Garro).
Fernando Arburua
psikologoaren hitzartea.
Portalea (areto nagusia).



DANBORRADA

19:00 Amañako
danborradarako haurren
entsegua.

20:00 Helduena. Amañako
eskola.

DANTZA

19:30 "Kaxa Zirkoa".
Coliseo.

ERAKUSKETAK

Maiatzaren 26ra arte:

- "Eibarko eskubaloia-
ren historia iruditan".

(Errebal Plazia. 1. pisua)

Maiatzaren 29ra arte:

- **ELENA PLAZA, EVA
FRANCO, KOLDO VADILLO,
OSKAR MANSO.** (Portalea).

- **JUAN ANTONIO**

PALACIOS. (Topaleku).

- **XLVIII. NAZIOARTEKO**

GIPUZKOAK SARIA

(Untzagako Jubilatua Etxea).

Maiatzaren 31ra arte:

- **ARGIZAIOLA 2021.**

(Klub Deportiboa).

- **EIBARKO KLUB**

DEPORTIBOA. (Portalea
taberna).

Ekainaren 5era arte:

- "Istripuak eta Prebentzioa."

XX. Mendeko kartelak".

(Armagintzaren Museoa).

Eskualdeko Agenda

ERMUA

ANTZERKIA

20an (barixakua) / 20:30

Ermua Antzokia

"Altsasu" antzezlan.

La Dramática Errante

konpainia. Sarrera: 10 euro.

DEBA

MUSIKA

20an (barixakua) / 22:00

Debako Kultur Elkarte

Kontzertua: Bidelapurra

eta Pelax. Sarrera: 5 euro.

SORALUZE

MUSIKA

22an (domeka) / 13:00

Plaza Zaharra

Kontzertua: Bergarako

Musika Banda. Aurretik

kalejira, 12:00etan hasita.

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **21ean:** 19:45, 22:30
- **22an:** 20:00
- **23an:** 20:30

“En su punto”

Zuzendaria: ChistophThompson




2 ARETOA

- **21ean:** 17:00, 19:45, 22:30
- **22an:** 17:00, 20:00
- **23an:** 20:30

“Red Rocket”

Zuzendaria: Sean Baker



ANTZOKIA

- **21ean:** 17:00, 19:45, 22:30
- **22an:** 17:00 (1. Aretoa), 20:00
- **23an:** 20:30

“Ojos de fuego”

Zuzendaria: Keith Thomas



ANTZOKIA

- **21ean:** 17:00
- **22an:** 17:00

“Las aventuras de Pil”

Zuzendaria: Julien Fournet



FUNEUSKADI
Ginpa kudea

TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funerariak

TANATORIO KRAMATORIO
FAGOILAN

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

| | |
|---|---|
| <p>Eibar: Oraola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p> | <p>Elgoibar: Xaillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16</p> |
|---|---|

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

LORADENDA

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE
NATURAL ETA
LEHORRAK
EZKONTZETARAKO
LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK

Enkarguak etxera

- **tartak**
- **enkarguak etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...**eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **ANNE** Lasuen, atzo 5 urte bete zenduaz-en-eta. Patxo potolua aitatxo, amatxo eta, batez be, Markelen partez.



Zorionak, **JULE**, atzo 2 urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixaren partez. Asko maitte zaittugu!



Zorionak, **MARKEL**, atzo 2 urte bete zenduaz-en-eta! Musu haundi bat etxeko danon partez.



Zorionak, **MARKEL!** Hillaren 24an 8 urte beteko dozuz-eta! Musu potolo bat Hegoi eta etxekuen partez!



Zorionak, **HELENE** G^a-Pascual Ramos, hillaren 18xan 3 urte bete zenduaz-en-eta. Aitta, ama eta aittitta-amen partez.



Zorionak, **MAIALEN**, bixar 2 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak!! Amatxo **IRAIAK** (hillaren 18xan) eta **JOL** semiak (21ian) urtiak betetzen dittuelako. Musu haundi bat amama Edurne eta aitxitxa Josuren partez.



Zorionak, **AITOR** txiki eta aitxitxa **AITOR!** 4 eta 65 urte bete dozuez-eta. Besarkada bero-bero bana etxekuen partez!



Zorionak, **ANAITZ**, hillaren 25ian 4 urte egingo dozuz-eta. Etxekuen eta, batez be, **UNAX**en partez.



Zorionak, **AIORA** eta amatxo **IHINTZA**. Oso ondo ospatu zuen egun politt hau. Musu haundi bana!!



Zorionak, **JANIRE**, hillaren 19xan 12 urte bete dozuz-eta. Zein fiña zaren ikusitta zutaz harro dauden zure gurasuen partetik.



Zorionak, **CLAUDIA!!!** Etzi 10 urte egingo dozuz-eta!! Aitxitxa, amama, gurasuak eta zure anaixa Jonen partez.



Zorionak, **EKHI** eta **LAIA** Castro, zuen urtebetetzien-gaittik. Musu haundi bat.

Iragarki laburrak



688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Pisua salgai Jardifieta kalean. 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Pisu altua eta eguzkitsua. Dena kanpora begira. 673802614.

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan. Minusbaliatuentzat ego-kitua, igogailuarekin 0 kotan. 671101439. Carmen.
- Donostian etxebizitza alokagai uztaileerako. Ondarreta hondartzatik bost minutura.

2 logela, egongela-jangela-sukaldea eta bainugela. Berriztuta (wifia) eta igogailuarekin. 699027734.

- Etxebizitza alokagai Deban udarako, hilabeteka. 3 logela, 2 bainugela eta 2 balkoi eder. Bista paregabeak. Igogailua 0 kotatik. 657795876 (arratsalde).
- Zumaian 3 logelako alojamentu turistikoa asteka errentan eskaintzen da uda zein beste edozein urtarotan (garajea aukeran). 2019an guztiz erreformatua. Zumaia erdian dago, taberna girotik kanpo. 678222229.
- Zumaian 2 gelako etxe berria alokagai ekaina, uztaile, abuztua eta irailerako. 4 lagunentzat proposa. Igogailuarekin. Hondartzatik gertu. 722612247.

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Lursail/terreno bat erosiko nuke Eibarren edo inguruan. 669176108. Natalia.
- Trasteroak salgai Eibarko erdialdean. Sarbide onarekin. 2.000 eurotik hasita. 620099120.

3.2. Errentan

- Garaje itxi handia alokagai Eibar erdian, Unzaga Plaza hotelaren ondoan. 688669993.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak eta gaixoak zaintzeko arratsalde eta asteburuetan. 617571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. 722408667.

- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. 631611201.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tituluarekin. 633946701.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 624640803.
- Gizonezkoa eskaintzen da garbiketarako egiteko eta beste edozein lanetarako. 624669438.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin) eta garbiketarako egiteko. 602490595.
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. 690384909.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Titulua eta esperientziarekin. 603514085.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 631143972.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 631721980 eta 641418753.
- Gizonezkoa eskaintzen da eraikuntzan lan egiteko, sukaldari bezala etabar. 617480009.
- Neska euskalduna eskaintzen da menpekotasun egoeran daudenekin lan egiteko. Akreditazioarekin. Urte askotako esperientzia. 667376212.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Agiri sozio-sanitarioarekin. 631425686.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (gauzez ere) eta etxeak garbitzeko. Habilitazioarekin. 641322939.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Egun osorako disponibilitatea. 602012075.
- Emakumea eskaintzen da

nagusiak zaintzeko. Egun osorako disponibilitatea. 632642320.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez eta asteburuetan ere. Titulazioarekin. 612540997.

4.2. LANGILE BILA

- Pertsona euskalduna behar dugu umeak eskolara eramateko. Goizez bakarrik. 626745995.
- Kamarrera/o euskalduna eta esperientziaduna behar da pintxo taberna batean. 661955980.
- Saltzailea behar da Eibarko harategi batean. 647526441.

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- DBHK, Batxilergoko eta Selektibitatea prestatzeko klaseak ematen dira. Talde txikiak. 678937827.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- DBH4-ko liburuak erosiko nituzke. 637587811.
- Menpekotasuna dutenak mugitzeko garabia, erroberadun-aulkia eta taka-takak salgai. 661874548.

6.2. Eman

- 1.500 piezetako puzzleak oparitzen dira. 619655583.
- Txakurkume ezin politagoak oparitzen dira. 688642761. Asier.



osasun gida

Kirol Medikuntza

ZERBITZU MEDIKOAK

ATHLETE FISIOTERAPIA ETA KIROL BERREGOKITZEA

- ONARRIZKO MEDIUKIROL AZTERKETA
- ESFORTZU PROBA KLINIKOA
- ESFORTZU KIROL PROBA



EIBAR Indalezio Ojanguren, 1 - behea 6
 Oribia hartzeko edo informazio jasotzeko:
 cvfisiologiadeportiva@gmail.com
 943 05 78 98

Podologoak

**ELENA
AIZPUN
PODOLOGOA**
 838200124
 kolegiatu pembakia



T. Etxebarria, 5 - 1. A
 943 12 14 93 / 696 555 208

PODOLOGO
 T. ORTOPEDICO



Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
 (Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Logopedak

AHOTS-LAN
 LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA



Isasi, 17 - 1. esk.
 943 202691
 ahotslan@gmail.com

Diagnostikoa eta tratamendua
 Degluzio atipikoa / Disfonia
 Ikaste-arazoak / TDAH
 Berba arazoak / TEA / Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
 943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
 943 799746

PODOLOGOA
 Erdiko klinika

Nerea Arregi (112 Kolegiatu zbkia.)
 Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
 Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

Psikologoak

AMETS
 PSIKOLOGIA KLINIKOA
 ETA OSASUN ZENTROA



BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
 www.centreamets.com

Coro Ortiz de Urbina - Master Praktika Klinikoa
 PSIKOLOGOA (2019R1) iragarpen - Master P.N.L.
 Tel. 675 70 68 07 - Trainer

Okulistikak

Recalde
 Clínica Oftalmológica
 Oftalmología Clínica




• Presbiziaren kirurgia.

R.P.S. 234913



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
 www.clinicarecalde.com

PODOLOGOA



**Maidor
Lopez
Etxebarria**

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
 Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

PSIKOTERAPIA ZENTRUA



HAUR, NERABE ETA
 HELDUENTZAKO
 PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
 Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
 www.arratepsicoterapia.com

Psikologia klinika eta
 Psikoterapia zentroa



Oscar Mondragon Lili
 GOZUEZ ETA ARRATZALDEZ
 Urkizu, 13 - behea
 Tel. 943206823 / 686859023



943-206776



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea,
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian,
Periodontian, implantologian,
Leongo Unibertsitatea.
Diplomaturua Aho Kirurgian,
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomaturua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.
Hortz-Estetikan Diplomaturua.
Autran Institutua, Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

 Facebooken: Clínica Dental Irazabal www.clinicairazabal.com



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com